

Giza Eskubideen  
defendatzaileen **testigantzak** 2

---

# Danelly Estupiñán Valencia

*Kolonbia*

---



2021eko azaroa



*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

978-84-457-3632-6



Giza Eskubideen  
defendatzaileen **testigantzak** 2

---

# Danelly Estupiñán Valencia

*Kolonia*

---

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLITICAS SOCIALES

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2022

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako  
Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:  
[https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin\\_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001](https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001)

**Argitaraldia:**

1a, 2022ko urtarrila

**Ale-kopurua:**

40 ale

**Internet:**

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

**Maketazioa:**

Quod Sail

**Inpresioa:**

Eusko Jaurlaritzaren Inprimaketa eta Erreprografia Zerbitzua

**L.G.:**

LG G 00012-2022

**ISBN:**

978-84-457-3632-6

## Hitzaurrea

---

Eusko Jaurlaritzak, giza eskubideen aldeko euskal erakundeen bultzadaz eta talde-lanaz animatuta, Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programa jarri zuen martxan 2011n, giza eskubideekiko eta nazioarteko elkartasunarekiko duen konpromisoa berresteko. Programaren helburua da jaioterrian gauzatzen duten jarduera dela-eta beren bizitza edo osotasun fisikoa arriskuan duten giza eskubideen defendatzaileak babestea, Euskadin sei hilabeterako harreran hartuta.

Giza eskubideen defendatzaileak babestea erantzukizun-ariketa eta erronka etengabekoa da. Horregatik, programa tresna bizia da, etengabe berraztertzen eta birmoldatzen ari dena. Instituzioen, erakundeen nahiz komunitatearen esparruko ahots ugari taxututako programa bat da gaur egungoa: dela Euskadin, dela beste herrialde eta eskualde batzuetan, babeserako eta elkartasunerako tresna hau taxutuz joan da.

Giza Eskubideen, elkarbizitzaren eta kooperazioaren hezkuntzan, kontzeptuak eta edukiak ikastea beharrezkoa da, baina ez da nahikoa: esperientziaren ikaskuntzarekin osatu behar da. Pertsonen duintasuna, giza eskubideak, enpatia, elkartasuna, aukeratzeko ahalmena... kontzeptuak ez ezik, bi-zipenak ere badira: norberak bizi eta sentitzen dituenean, kontzeptu horien benetako irismena ulertzen du.

Giza eskubideen defendatzaileen testigantzak entzuteak inpaktu pedagogiko handia dauka. Testigantza pertsonalak izaten dira, eredu gisa zabaldu beharrekoak diren esperientzien protagonistenak edo lekuko zuzenenak. Esperientzia horiek ahalbidetzen digute, gainera, gure konfort-eremutik ateratzen gaituzten hainbat errealitatekin harremanetan jartzea.

Gizon eta emakume askok giza eskubideak defendatzen eta sustatzen dituzte aukerarik eta modurik zabalenean; hartara, berretsi egiten dute gizartearen inguruan duten uste eta desira sendoa: gizarte bat, non posible den duintasunez eta beldurrik gabe bizitzea, egunero-egunero aurre egin beharreko oztopoak egonda ere. Haien testigantzak entzunda, enpatiarako dugun gaitasuna indartzen da, eta pertsona horiekiko eta defendatzen dituzten giza eskubideekiko dugun elkartasuna eta konpromisoa sustatzen da.

Giza eskubideen defendatzaileen testigantzak entzutea beren lana aitortzeko modu bat ere bada, gainera. Eusko Jaurlaritzak, testigantza hauekin, aitorten espresu bat egin nahi die pertsona horien lanari eta eskuzabaltasunari.

Bilduma honetako testigantzetan erabilitako iritziek eta moduek ez dakarte berekin kontatutako egoerei buruzko inongo iritzirik edo epairik Eusko Jaurlaritzaren aldetik.

## **Aurkibidea**

### **Danelly Estupiñán Valencia**

<b>1. Sarrera</b>	<b>8</b>
<b>2. Testigantza</b>	<b>12</b>





---

# Danelly Estupiñán Valencia

---

El Congal - Buenaventura Eskualdeko Palenke-ko buruzagia  
Komunitate Beltzen Prozesua - PCN -  
Kolonbia

# 1. Sarrera

---

CEAR-Euskadikook 25 urte daramatzagu errefuxiatuen, aberrigabeen eta egoera kaskarrean dauden migratzaileen giza eskubideek alde lanean. Herritarren jazarpena, mehatxuak eta behartutako joan-etorriak eragiten dituzten indarkerien egiturazko kausak salatzen ditugu, eta asilo-eskubidea aldarrikatzen dugu herrialdez herrialde babes-mekanismo izateko, bai eta kolokan dauden giza eskubideen defendatzaileak aldi baterako babesteko tresnak ere, hala nola Babeserako Euskal Programa.

Lanean hasi ginenetik, errealitate, ikuspegi eta ikaskuntza berriak gureganatu ditugu, gure programan izan diren defendatzaileei esker, eta haien kolektibo eta komunitateen nahiz eraikuntza kolektibo honetan parte hartu dugun giza eskubideen aldeko erakundeen irakasbideei esker.


Eta ikasitakoak ikasita, hara zer den guretzat BABESA: bizitzeko eta lanerako gune seguruak sortzeko eta hedatzeko, kalteak prebenitzeko eta arriskuei aurre egiteko asmoz, jendeak, jendarteak nahiz kolektiboek burutzen dituzten ekintzen eta lantzen dituzten estrategien multzoa. Horregatik, gure helburua da ikuspegi integral eta feminista integratzea, mehatxu-falta baino harago, ongizatea izango duena muina, dimentsio pertsonala, soziala eta komunitarioa kontuan hartuta.

Ikuspegi horretan, kolektiboak aparteko garrantzi hartzen du sistema kapitalista eta heteropatriarkaletik eratorritako mehatxuei aurre egiteko. Ez da kasualitatea: gaur egun ekintzaile feministak eta lurra, lurraldea zein ondasun komunak defendatzen dituztenak dira arrisku larrienean daudenak.

ERABATEKO BABESAREN ikuspegi horrek lau dimentsio hartzen ditu kontuan: antolaketa, harremanak, arlo psikosoziala eta segurtasuna. Lau hankako mahai baten bidez irudikatzen dira<sup>1</sup>. Horietako bat moztuz gero, nola ez, mahaia kolokan.

---

<sup>1</sup> Ansur kolektiboak garatutako kontzeptu da hau. Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programarekin batera egin du lan kolektibo horrek, azken 10 urteotako ibilbidean.



**Antolaketari lotutakoak** zera dira, erakundearen segurtasuna areagotzen duten barneko edo funtzionamenduko elementuak: barnean antolatzen diren prestakuntza-espazioak, babesari, erabakiak hartzeari, testuinguruaren, arriskuaren eta segurtasun-intzidenteen sistematizazioaren analisia egiteko metodologiei eta lidergo kolektiboen sustapenari buruzko kontuak lantzeko.

**Harremanari lotutakoak** hauek dira: Estatuko eta nazioarteko sareak, aliantzak eta koordinazio-espazioak, horien berrikuspena eta horiek areagotzeko eta mantentzeko mekanismoak, baita agintariekiko harremana ere, intzidentziaren bat egonez gero.

**Segurtasunari lotutakoak** segurtasuna sendotzen duten ekintzak dira, aurrea hartzeko edo erreakzionatzeko moduen gainean pentsatzeko aukera ematen dutenak, nola hala informazioa maneiatzea, jarduteko protokoloak eta larrialdi-planak.

Azkenik, jendearen ongizatea ziurtatzen duen oro sartzen da **alderdi psikosozialetan**: indarkeriaren inpaktuei aurre egiteko moduak, emozioak adierazteko barne-mekanismoak, beldurraren maneia edo testuinguruaren eta estresaren ondorioz etortzen den pattalaldiaren prebentzioa.

Lau zutabe horiek ditugu gure babes-lanaren eta giza eskubideen defentsarekin dugun konpromisoaren oinarri.

Danely Estupiñán Valencia, Buenaventurako Komunitate Beltzen Prozesuaren (NJP) burua, 2018an iritsi zen Euskadira, Mugarik Gabeko Emigratuak euskal erakundearen eskutik. Etnia- eta lurralde-eskubideen alde jarduteagatik jasotako mehatxuek behartuta irten behar izan du Kolonbiatik aldi baterako.

Bere lekukotasuna CEAR-Euskadiko Babeserako Euskal Programaren arduradun Leire Lasa Fernándezekin hiru egunetan izandako bilera eta elkarrizketen emaitza da. Buenaventurako NJPan Danelyk daukan bulegoan bere bizitza eta politika ibilbideari buruzko kontakizun mamitsua banatu zuen gurekin: kontakizun eskuzabala, zintzoa eta ausarta da, erraietatik datorrena, Kolonbiako Ozeano Bareko emakume beltzek bizitza duin eta baketsuaren alde egiten duten borrokari darion emozioarekin kontaktua.

Ondorengo orrialdeetan Danelyren ahotsa entzungo duzue, Buenaventura beltz, komunitario eta antzinakoaren ahotsak, ozen dirautenak bizitza, itsasoa, ibaiak eta mangladiak, dantza eta musikaren hotsetan, lur hartan antolatzeko eta irauteko berezko moduen doinueta. Ahots, hots, doinu.... giza eskubideak eta justizia soziala defendatzen eta diskriminazioak eta indarkeriak eragindako egiturazko kausak ikusarazten eta desagerrarazten dabiltzainen aire biziak.



## Emigrad@s Sin Fronteras

---

Emigrad@s Sin Fronteras, giza eskubideen defendatzaileak babesteko prozesua agindu instituzional gisa hartzen du, giza eskubideen sustapena eta defentzaren bere lan-ildo estrategikoen parte bezala. Horregatik, Eusko Jaurlaritzaren eta Cear Euskadi buru duen Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi baterako Babesteko Euskal Programaren antolakuntzarako erakude bat bilakatzea erabaki du.

Esparru horretan, 2018an, Danelly Estupiñán Valencia defendatzailearen hautagaitza proposatu zuen, zeina une horretan PROCESO DE COMUNIDADES NEGRAS (PCN) erakundearen parte zen. Tokiko eta eskualdeko aktibista ospetsua da, Buenaventurako kapitalaren dinamiken ondoren sortutako arazo sozial, kultural eta ekonomikoak ikusarazten lagundu duena. Giza eskubideen defendatzailea ikerketak egiten ari zen Buenaventuran portu-hedapenaren strategiaren inpaktu negatiboari buruz, eta horregatik mehatxatu zuten 2015ean, bere ikerketetako bat argitaratu ondoren. Ikerketa honek TCBUEN portu-megaproiektuak Buenaventurako inmaculada 5 auzoan dituen ondorioak azaleratzen ditu, izen hau emanda: Portu gehiago; komunitate gutxiago - portu-hedapenaren inpaktuak inmaculada auzoan. Gaur egun, Buenaventura lurraldearen defentsan lan egiten jarraitzen du, lurraldean bakean eta duintasunez bizi ahal izateko.

Nazioarteko komunitateak –eta partikularki Espainiako estatua, “de iure” Mendebaldeko Saharako lurraldea administratzen duen potentzia dena– beste alde batera begira daude Mendebaldeko Saharari dagokionez, eta akordio ekonomiko handiak sinatzen dituzte Marokoko erregimenarekin, nahiz eta hark, nazioarteko legeak nabarmen urratzeaz gain, jarraitzen duen nazioarteko itunak ez betetzen giza eskubideei dagokienez.

Bitartean, Mendebaldeko Saharan, oraindik ere, giza eskubideen defendatzaileak (hala nola Elghalia Djimi, Aminetu Haidar eta Sultana Jaya) eta beste emakume eta gizon engaiatu eta ausart askok, jazarpena jasateaz gain, beren buruak arriskuan jartzen dituzte Saharako herriaren eskubideak defendatzeagatik. Kausari oso emanak ditugu adibide horiek, bai eta bizitza-eredu zoragarriak ere.

## 2. Testigantza

Danelly Estupiñán Valencia naiz. 1979ko urriaren 22an jaio nintzen Charambirá-n, Ozeano Bareko hondartza ederrean, Chocó departamenduko hegoaldean, goizeko seietan, amak berak kontu eginez bere buruari erditzean, arbasoek erakutsita bezala. Gau hartan, dakienaren iaotasunez, beheko sua piztu zuen, matxetea hartu zuen, alkoholez garbitu zuen eta, poliki-poliki, sutan jarri zuen esterilizatzeko. Ondoren, sutan txigortzen jarri zituen guaiabondo-hosto batzuk eta inurri hosto-ebakitzaille baten bi hanka; gero, zapi zuri batean bilduta, hostoak eta hankak behatz erakusleaz txikitu zituen hauts bihurtu arte. Paper artean gorde zuen gero hautsa, ni jaio ostean zilborra sendatzeko.

Zeruertzean lehenengo eguzki-izpiak ageri berri zirela, etxeke gela batean sartu zen ama, nire ahizpak eta aita ere bertan bizi ziren-eta, eta mundutik baztertu zen une batez, arbasoen milurteko tradizioarekin beste inor gabe bat egiteko. Banentorrela iragartzen zuten minak gero eta latzagoak ziren, eta umea izateko zeuden beste emakumeei egiten zizkien erremedio guztiak erabiltzen hasi zen. Izerdia, min izugarria eta estutasuna baretu egin zitzaizkion apurka, tartetxo batean ere konexio sakratu hura galdu gabe. Erlojuak goizeko seiak markatu zituenean, belauniko jarri zen, sabeletik zetorkion bizitzari bide emateko. Ia-ia akituta baina bere buruaren jabe, lehenago esterilizatutako matxetea hartu zuen adore handiz, berriz ere alkoholez garbitu eta zilbor-hestea moztu zuen. Besoetan hartu ninduen, eta maitasunez ferekatu ondoren, emeki-emeki laztandu zizkidan masailak, bekainak, belarriak eta eskuak. Horretarakoxe prestatutako aska batean oheratu ninduen, eta patxadaz bere erraietatik karenera ateratzen hasi zen. Bien bitartean, nire negarrak etxekeak esnatu zituen, eta, ohetik salto eginda, negarra nondik ote zetorren bila hasi ziren. Han nengoen ni, gela hartan, ate itxiaren bestaldean. Nire ahizpa nagusietako bat paretan batetik gora igo zen, gelan sartu zen, eta gela ireki zigun. Han zegoen nire ama, ahituta, eta ama Choak<sup>1</sup> lagundu behar izan zion plazenta ateratzen. Gero etxeke zutabeetako baten ondoan (*horcón*<sup>2</sup> esaten zaie) lurperatu zuten. Eguzkitan berotutako albaka-urarekin bainatu ninduten. Gantzezko kandela bat piztu zuten, eta harekin zapi garbi bat igurtzi zuten, sugarretan berotuta behin eta berriz zilborra koipetzeko, hartara, lehenbiziko bainu haren hezetasuna lehertzeko. Egun batzuk geroago erori zitzaidan zilborra. 9 egunez kontu egin zioten inurri eta guaiabondo-hostozko hauts magiko harekin, gaintetik kontu handiz esparatrapuarekin jarrita.

Eta halaxe, nire amak, Doña Filok, zilbor hori oparitu zidan; erori aurretik eusten nau eta gaur egun naizen emakumea izanarazi dit. Berak dio nire zilborra sendatzeko guaiabondo-hostoak erabili zituela zuhaitz gogorra delako, eraisten zaila nahiz oso txikia izan, eta inurri hosto-ebakitzaillearen hankak, berriz, animalia horrek gau eta egun egiten duelako lan. Alegia, guaiabondoa eta inurri hosto-ebakitzaillea naiz ni; landare eta animalia naiz barrutik. Han dago nire zilborra, jaio nintzen etxearen azpian ereinda, Charambirá-n, oraindik ezagutzen ez dudan tokian.

### Nire haurtzaroa ... eta gazte-ibilerak Buenaventuran

Urtea bete nuenean, Buenaventurara joan zen familia; 6. komunako Miraflores auzoan kokatu ginen. Gure kulturaren, neskato bat jaiotzean fruta-erbola ereiten da, eta egurretarako zuhaitza mutikoa jaiotze gero. Mulatsetatik berak ekarritako kokondo bat landatu genuen aitak eta biok, han jaioa baitzen aita, Hego Ozeano Bareko hondartza eder hartan. Lursailik ez geneukanez, baimena eskatu eta osaba baten lurretan landatu genuen: aitak lurtean zulo bat egin eta esan zidan palmondo hura ni nintzela, elkarrekin haziko ginela eta haren fruituak nire fruituak izango zirela. Palmondo nirekin batera hazi zen, eta nire *coteja* da. Hemen, *coteja* esaten zaio norberaren parekoari. Gure etxean hazi ez bazen ere, bisitara joaten ginen tarteka; kokoak hartu eta jan egiten genituen, eta ondo kontu egiten genion; goxo-goxo

1 Charambirá-ko (Chocó) emakume jakintsuak izendatzeko erabiltzen den hitz txeratsua.

2 Eraikin tradizionalak (etxea, teilatu laua...) sostengatzen dituen oinarri zurezkoa. Oinarri horiek behar bezain sendoak eta finak ez badira, egitura goitik behera etortzen da. Zutabeak sendo jarraitu behar du, nahiz lurrak lagundu ez; indarra galtzen badute aldatu edo sendotu egin behar dira, azpiegituraren sostengu dira-eta.

ukitu, ura eman..., tentuz beti, ihartu ez zedin. Erritual horrek lurrari lotzen gaitu, eta halaxe lotu ninduen aitak Buenaventura hiritarrarekin.

Haurtzaro polita izan nuen oso. Asko jostatzen nintzen jolas tradizionalekin, eta amagandik oso hurre nenburgilen beti; asko ikasten nuen beragandik, eta hura imitatzen ibiltzen nintzen, sendalariarena edo mediku tradizionalarena egiten, sendabelarrekin jolasean. Belarrak bildu eta amak, Doña Filok, auzoko gaixoak sendatzeko egiten zituen edabeak prestatzen nituen. Ez zen inoiz amaitzen joko hura. Botilakada edabe prestatu ondoren, gaixoei tratamendua egiten nien, bisitak egiten nituen, belarrekin *sobijoak* (masajeak) ematen nituen... eta halaxe pasatzen nituen arratsaldeak, sendagilearena egiten. Denentzat prestatzen nituen edabe eta ukenduak: panpinentzat, oilaskoentzat, ahizpentzat... Sorgina omen nintzen, ama bezala. Hala esaten zidaten, eta ni pozik.

Aitak sustrai europarrak zituen, bikingoen ondorengoa omen zen. Konkistaren eta koloniaren garaian iritsi ziren hona bere arbasoak. Bere komunitatea oso arrazista izan da beltzekin, nahiz eta haiekin nahastu ziren.

Amak eta aitak elkar ezagutu eta elkar hartu zuten. Amak bazituen ordurako bederatzai seme-alaba, eta aitak bost. Ni izan nintzen bien alaba bakarra. Nire amak aitaren eta bere familiako batzuen arrazakeria jasan zuen.

Amaren parteko bi ahizparekin hazi nintzen, Esperanza eta Carmenzarekin. Gainerako seme-alabak aitona-amonei, izebei eta lagunei utzi behar izan zizkien nire amak, dirurik ez zuelako denak hazteko, umeen aitek ez baitzuten inoiz ardurarik hartu.

Miraflores auzoan bizi eta handitu nintzen, 24 urte bete arte. Gero haurdun geratu nintzen, eduki dudana alaba bakarrarekin, eta amaren etxetik joatea erabaki nuen, nire gisan bizitzeko.

Aitaren seme-alabak urrunetik ezagutu nituen. Harreman ona genuen, batez ere haietako birekin. Ontzigileak ziren, eta txalupak eta itsasontziak zituzten. Pazifikoko indarkeriaren lehen etapa hasi zenean, Mulatos hondartzatik Buenaventurara egin zuten bidaiari, desagerrarazi egin zituzten. Hori izan zen aktibista lanean eraman nuen lehenengo bortxazko desagertze-kasua, eta prozesu horretan mezu bat iritsi zitzaidan izebaren bitartez, aitaren arrebaren bitartez. Mezu horretan gomendatzen zidaten ez jarraitzeko bilatzen, hobe zela auzia ahaztea; beraz, mezuari jaramon egin eta bertan behera laga nuen, ez neukalako ia informaziorik biktimen eta senitartekoen bizitzari buruz, eta senitartekoen kasua ez salatzea erabaki zutelako.

Garai hartatik gogoratzen dut, halaber, diru eskasia eta, batez ere, nola eutsi behar izaten genion goseari. Arrantzalea nuen aita. 25 eta 35 egun bitarte pasatzen zituen itsasoan, arrantzan, eta etxean zegoen astean oso diru gutxi jartzen zuen etxerako. Eta berriz ere arrantza zihoanean, gu berriro gose. Askotan arrosa edo entsalada besterik ez geneukan jateko bazkalorduan. Iluntzean goiz oheratzea tokatzen zitzaigun, nekea arintzeko eta, goizetan, guk nahi baino sarriagotan, ez zegoen gosaririk. Halako egunetan, berandu arte lo egiten uzten zigun amak, hartara bazkaltzeko garaian esnatzeko. Gogoan dut beti gose ginela. Beti, beti.

Hazi egin nintzen, eta ikasi, eta gabeziak beti hor. Jatenaren kontua konpontzeko, han eta hemen saiatu ginen: nire ahizpak besteen etxeetan hasi ziren lanean, txiki-txikitatik; eta ezin izan zuten lehen hezkuntza besterik egin. Ni azkeneko alaba nintzenez, goxokiago bildurik nindukaten, eta amak, neke handiz, batxilergoa buka nezan lagundu zidan. Makina bat sakrifizio eginda ikasi nuen, gutxi janda, oinetakorik gabe, ibiliaren ibiliaz sare-sare eginiko uniformeak jantzita, eta eskolako tresnarik gabe. Batxilergo titulua jasotzeko egunean, ez neukan dirurik ez zapatak erosteko ez graduazio-zeremoniarako toga alokatzeko. Gogoan dut negar batean egon nintzela, eta inoiz ez bezala gorrotatu nuela pobrezia, aurreneko lorpen hura ere ez zidalako utzi ospatzen. Zeremoniako azken entseguaren egunean, bakoitzaren neurriaren arabera ikasle bakoitzarentzat egin zituzten zapatak entregatzen ari ziren. \$14.000 ziren, 10 EU inguru. Nire amak ez zuen dirurik, eta, beraz, ez zizkidaten eman. Negarrez hasi nintzen ikastetxeko lagun baten amak, Bertha andreak, oinetakoak ordaindu zizkidana arte, graduazioko oparia egingo zidala esanez. Tradizionalki batxilergoerik beste osagarri bat ere oparitzen zieten: urrezko eraztun bat, izena eta urtea jarrita. Nire lagun guztiek zuten, nik ez. Beraz, eraztun-forma zuen arotxo bat aurkitu nuen etxean, erre-itxurakoa, eta huraxe jantzi nuen. Erantzuna hatzean jarrita, graduatzera joan nintzen.

Pobrezia anker harekin moldatu ezinik nenbilen beti. Sinestatuta nengoen bestelako bizimodua behar nuela izan: ondo jan, paseatzera joan, hainbestetan ametsetan izan nuen bainujantzia eduki, Gabonetan ondo jantzi, jostailuak eduki eta, batez ere, gela edo logelak dituen etxe bat eduki, gu bizi ginen etxean ez genuen gelarik izan-eta. Oheak ziren etxeko altzariak. Horrek amorru handia ematen zidan eta oso minbera sentiarazten ninduen. Norbait bisitan zetorkigunean, gure pribatutasuna urratzen zigula sentitzen nuen, nire ohean esertzen baitziren, altzari bat balitz bezala. Oso haserre jartzen ninduen horrek, eta ohe-azpian ezkututzen nintzen. Haiek joan ondoren irteten nintzen; ez zitzaidan axola zenbat ordu egon behar nuen ohepean, ez nintzen handik ateratzen, ezta pixa egitera ere, hori zen nire protesta.

Bost edo sei urte nituela, saltzaile ibiltari batek —“*cacharrero cochino*” esaten diogu hemen— sexu-abusua egin zidan. Nire memoriatik ezabatu nuen hura, hamar urte baino gehiago. Ezustean gogora etorri zitzaidan, alaba jaiota zegoela, 24 urte nituela... Bat-batean etorri zen oroitzapena: arratsalde eguzkitsu batean izan zen, etxe-atzean jolasean ari nintzen, beti bezala sendalariarena egiten, 30 urte inguruko gizon zurixka bat pasatu zenean. Eskuko megafonoarekin, zizareak eta haurren gainerako parasitoak hiltzeko erremediorik onena saltzen zuela aldarrikatzen ari zen, eta sintomak deskribatu zituen: “*Le ofrezco el remedio para las lombrices, desparasitantes. Si su hijo duerme con los ojos entreabiertos, si sus dientes suenan mientras duerme, si tiene el estómago grande, come poco y come mucho dulce, entonces tiene lombrices. Compre el Pipelom, para curarlo de las lombrices*”. Ama, asko zaintzen gintuenez, gaixotasunik ez hartzeko erremedioak ematen ari zitzaigun beti. Gizonari etortzeko esan zion, erremedioa erosi nahi ziola eta. Gizonak esan zion erremedioak eragina izango bazuen, otoitz bat egin behar zela eta doan egingo zuela. Gure amak baietz, oso fededuna baitzen. Orduan deitu egin zidaten, jostailuak utzi nituen, eta gizonak amari esan zion ni esertzeko. Izara zuri bat eskatu zion, harekin estali ninduen, amari esan zion bere eskuak nire buruaren gainean jartzeko, eta hiru aitagure eta hiru agurmaria errezatzeko, begiak itxita. Bien bitartean, banana bat atera zuen bere poltsatik, ahoan jarri zidan, makurtu zen, izara altxatu zuen eta nire barruko arropan sartu zizkidan eskuak. Denbora luzean ukitu ninduen. Amak otoitza amaitu baino lehen, sadikoak ni ukitzeari utzi zion, aio esan zigun eta, amak, esker onez, dirua eman zion. Amak, banana bat jaten ari nintzela ikusita, esan zidan seguruenik zizareak aztoratzeko eman zidala, hobeto sendatzeko. Gogoan daukan baginan hazkura handia jarri zitzaidala eta amari kontatu niola. Miatu egin zidan amak. Oso narriatua neukan, fluxu eta guzti. Gizonak zer egin zidan galdetu zidan eta nik esan nion banana eman zidala eta ukitu egin ninduela. Horra nire oroitzapena. Gertakizun mingarri hartaz bizitzako lagun batzuekin egindako sendatze-saioan besterik ez dut lortu hitz egiterik, txikitako bizipenak gogora ekartzen hasi ginenean.

Koskortu nintzenean eta gaztetan amorru bizia izan nion amari, baina ez nekien zergatik. Egiten zuen denak eta esaten zidan denak gogaitu egiten ninduen, ez nion uzten ukitzen, hitz egite hutsak larria ematen zidan. Oso zakarra izan nintzen berarekin. Gertakizun triste hura berriro gogora ekarri nuenean, konturatu nintzen nire amarekiko sentipen haiek amorrutik zetozkidala, ez ninduelako babestu eta bortxatzaile baten esku utzi ninduelako, medikuntza zaharra bazekielako eta ni sendatzerik bazuelako.

Gaur egun, unibertsoari eskerrak, sentipen eta pentsakizun horiek sendatu ditut, eta harrezkero gauza izan naiz Doña Filorekin harremana izateko berriz. Eta poema eder bat ere idatzi nion: *A mi negra madre Doña Filo* (“Nire ama beltz Doña Filori”). Maitasuna adierazi nion, barkamena eskatu nion, eta barkatu egin nuen.

### ***A mi Negra Madre (Doña Filo)***

***Caminé de tu mano, tu espíritu me forjó guiando mi conciencia hacia lo que hoy yo soy.***

***Te admiré por largos años Negra madre llena de fe. Soy testiga de la luz que de tus manos brotó, curando males, asistiendo partos en el nombre de tu Dios.***

***Vieja negra de mi alma, perdón te pido por perder la fe, porque al descubrir tu secreto yo no lo valoré. Solté tu mano, salí de vuelo... y apenas hoy regresé bañada de lindos recuerdos de aquella niñez que detesté.***

***Negra linda de mi alma a la que le debo toditito mi ser, gracias inmensas por la negrura que me distes al nacer.***

***Gracias mi negra por el ombligo que no me deja caer, yo soy guayabo y también arriera, y solo tú sabes el por qué.***



Nire maistratzako monografikoaren azalean dator poema hau (*“Doña Filo la curandera del cuerpo y el alma. Aportes de las mujeres negras sabedoras a la pervivencia de las comunidades negras en Colombia”*). Hori idatzita, helburu bakarra nahi nuen bete: gure gizartean antzinako jakinduria duten emakume beltzek duten pisua nabarmendu nahi nuen, eta erakutsi gure jardun eta balio kulturalak direla Kolonbiako komunitate beltzari eusten dioten oinarriak. Beren ezagutzen bidez, komunitate beltzaren bizitza zaintzeaz eta babesteaz gain, Kolonbia eraikitzen laguntzen dute, etnia eta kultura anitzeko herrialde izanik. Monografiak merezimenduzko aipamena jaso zuen, eta argitaratzeko irrikatan nago.

Neskatotan, auzokoek koadernoak, uniformeak eta zapatak oparitzen zizkidaten. Asko maite ninduten, Buenaventuran denak beltzak direlako eta, ni, berriz, *monita*<sup>3</sup>. Gauza berria zen, neskatok txuri bat zegoen auzoan. Oso atseginak ziren nirekin eta nire amarekin, *mona* esaten zidaten; baina niri ez zitzaidan gustatzen ezizen hori, oso txikitatik emakume beltza izan nahi nuelako barru-barrutik.

Ikaskideekin, alabaina, arazo handiak nituen. Diskriminazio zakarra jasaten nuen. Jende beltzak kalte emozional handia jasan izan du arrazismoa dela-eta, baina, era berean, *paisa* edo zuritzat jotzen dituzten pertsonak ere diskriminatzen dituzte. Ikastetxean niri begira nituen denak. Neskek eraso egiten zidaten, nire larru-koloreagatik iseka egiten zidaten. Inoiz ez nuen harreman onik izan eskolako lagunekin. Gainera, oso lotsatia nintzen. Ez nuen ahotsik, ez nuen hitz egiten, ez nuen parte hartzen, edozer gauzatan oharkabearen pasatzen saiatzen nintzen, giro diskriminatzaila horretan ezertan jarduteko beldur nintzen.

Betidanik izan nahi izan nuen beltz, jaio nintzenetik. Beti ikusten nituen ama eta arrebak, eta haien kolorea eduki nahi nuen. Haien gorputzak eta ibilkera maite nituen, eta Jainkoari errieta egiten nion, kolore hain argi horrekin sortu ninduelako. Eguzkitan jarrita egoten nintzen denbora askoan, lagun batek esan zidalako bera ere hasieran ni bezalakoa zela, eta eguzkitan egotearen egotez beltza bihurtu zela. Halaxe, gaixotasuna hartu nuen. Aurpegian eta gorputzean xaboia igurtzi eta 4 ordu baino gehiago egoten nintzen eguzki betean. 15 urte nituela larruazala hondatuta neukan, orbanak nituen aurpegian, besoetan ... 24 urterekin zimurrak nituen aurpegian. Konturatu nintzenean, medikutara joan nintzen, eta tratamendu oso zorrotza jarri zidaten. Harrezkero, kontu handiz ibiltzen naiz eguzkitan, ez gara lagun onak. Eta, azkenik, ez nintzen beltz bihurtu, kanpotik behintzat; barrutik, bai, beltz bihurtu nintzen.

Etnikoki emakume beltza naiz, hala aldarrikatzen dut, badut eta argumentu sendo askoa: etnikoak ez du zerikusirik fenotipoarekin, etnikoak historia komunarekin du zerikusia. Ama beltza dut leinuz, bere historia nirea ere bada: bere amona esklabo izan zen bere garaian, eta bere arbasoak Afrikatik etorri ziren. Ni lurralde etniko batean jaio eta hazi nintzen, kulturalki asimilatuta nago, elkartasuna, elkarri laguntzea eta adinekoak errespetatzea ditut ondare, sendabelarrak hartuta sendatzen dut nire burua gaixotzen naizenean, beti-betiko jakiak prestatzen ditut aspaldiko errezetekin, *currulao* dantza egiten dut eta, batez ere, komunitate beltzeko parte errekonozitzen dut nire burua. Auto-errekonozimendua autodeterminazio-eskubidearen baitan biltzen da. Inork ezin du esan ez naizela nik izan nahi dudana: emakume etnikoki beltza, alegia, kontzientziaz beltza naiz, beldurrik gabe.

## Komunitatean nola bizi nintzen

Eguneroko bizitza oso polita zen. Auzoan etxeok ginen denok, elkar zaintzen genuen eta elkar babesten. Ama, oro har, ez zen etxetik ateratzen, gurekin egoten zen aita itsasoan zegoelako, arrantzan. Gizonak, kasu gehienetan, ez zeuden bertan; emakumeak jarduten ziren gu zaintzen, beti.

Ama *galeriara*<sup>4</sup> zihoanetan, hara joaten baitzen gehienetan, auzokoek zaintzen gintuzten. Etxera joaten ziren zer egiten ari ginen ikustera, ea bazkaldu ote genuen ala ez... Janaria prestatu eta eguerdian denei ematen zieten jaten. *“Eraman hau Doña Filomenari”*.

Zaintza komunitarioarekin lotuta gogoan grabatuta daukadan beste irudi bat: nire aitak ekartzen zuen arraina nola banatzen genuen. Zati bat itsasontzian bertan saltzen zuten, eta bestea etxera ekartzen zuen. Arrain asko zen. Garbitu, eta auzokoei banatzera irteten zen ama. Eta ahizpak beti galdezka:

3 Ile horia edo marroi argia duen emakumea edo neskatoka.

4 Soroetan ekoizten diren elikagaiak saltzen diren toki herrikoia.

“*Baina zergatik ez du saltzen arraina amak? Zergatik ibili behar du jendeari ematen, hurrengo egunean ez badugu batere janik izango, ezta erosteko dirurik ere?*”. Eta amak beti esaten zigun: “*Askoz hobea dut oparitzea, opari hori guk ere badugulako, premia dugunean*”. Inoiz ez zuen arraina saldu. Aita iristen zenean, oparoaldia genuen kale guztian, denok jaten genuen arraina, itsaso zabaleko arrainak ziren, oso handiak. Jendeak asko eskertzen zuen. Nik ere ez nuen ama ulertzen, eta batzuetan asko kuestionatzen nuen, baina urteen poderioz ikasi nuen ez dela ona bakarrik jatea, ematen duzuna biderkatuta jasotzen duzula bueltan, eta, batez ere, besteei emateak eta zerbitzatzeak poza eta satisfazio handia dakartzala.

Bizitza polita zen. Normalean, ez zuten liskarrik izaten auzokoek. Hitz eginez konpontzen ziren, eztabaidan jarduten ziren, besteek esaten zutenari kasu eginez. Bitartekari baten bidez konpontzen zituzten arazoak. Amari, emagina zenez, ia edozer gauzatarako egiten zizkieten galderak: nola kontu egin sabelari, nola eraman haurdunaldia, nola erditu eta umeak nola hezi. Berebiziko papera zeukan amak, gure jendarteko erreferente zen: auzokoen arteko gatazkak bideratzen jarduten zen, bikoteei aholku ematen zien, bai eta gurasoekin portaera aldrebesa zuten umei ere. Guk ere bagenuen ospea, amaren alabak izateagatik, eta asko estimatzen eta errespetatzen gintuzten.

Gogoan dut, baita ere, auzokoen etxe batzuetan komunitateko eskolatxoak bazeudela; hantxe ikasi genuen irakurtzen eta idazten. Irakurtzen eta idazten zekiten emakume gutxi haietako bat geneukan auzoan. Arratsaldeetan, eskolaurrean geunden ume guztiak hartu, eta irakurtzen ikastera eramaten gintuen. Haren etxea eskolaren osagarria zen. Eta irakurtzen ikasita geundenok ikasten ari zirenei laguntzen genien. Nik neuk ere eskolatxoa izan nuen etxean, 12 urte inguru nituenean. Bost, sei, zortzi urteko umei eskolak ematen hasi nintzen. Egin beharreko lanak egin, eta arratsaldean, lanak bukatutakoan, hantxe elkartzen ginen etxean. Ni irakaslea nintzen; umeak koadernotxoa hartuta etortzen ziren, eta nik matematika erakusten nien, eta diktatuak ere egiten nizkien idaztea lantzeko eta ortografia ikasteko. Ez zegoen dirurik tartean, nik komunitateari emandako zerbitzua zen.

Nagusiei errespetua izatea oso garrantzitsua zen. Nagusiek bazuten gaia gu zigortzeko, edo arrastoan sartzeko borrokan bagenbiltzan. Gogor ibili baginen joka, *látigo aconsejado* (“*zigor gomendatua*”) ezartzen ziguten, hau da, praktikak jaitsi eta ipurdikoak ematen zizkiguten, lehenik baten amak eta gero bestearen amak. Gero, eskua eman behar izaten genion elkarri, bakean geundela adierazi eta elkar besarkatu. Eta jolasean hasten ginen berriro segituan, baina amak adi-adi egoten ziren pixka batean, liskarra berriz piztuko ote.

Zorionekoa izan nintzen, elkar zaintzen ohitutako giroan hazi nintzen. Nire auzoko emakumeak ama handiak ziren, denon amak. Autoritatea ziren, beraz, haietako edonorengana jo genezakeen gure burua arriskuan ikusiz gero, laguntza eskatzera, bagenekien-eta emango zigutela. Egarrri baginen, edozein etxetan ematen ziguten ura, bazkaltzeko orduan non, hantxe bertan jaten genuen. Emakumeek ezinezkoa zuten seme-alabei jaten eman eta haien laguntxoek ez eskaintzea.

Kalean ibiltzen ginen jolasean, kalea genuen dibertsio-parke handia. El Aguacate *esteroa* (itsasadarra) zen gure igerilekua. Arriskuak baziren bai, baina bat ere ez gatazka armatuarekin lotuta. Eguneroko borroka txikiak edo noizbehinkako lapurretak ziren. Lapurrak harrapatzen zituztenean, komunitateak zigortzen zituen, jendaurrean jarrita denen bistan. Gizonek jipoitu egiten zituzten, eta emakumeek, berriz, ura eta aholkuak ematen zizkieten; tartean sartzten ziren zigor fisikoa amaitzeko eta, ondoren, auzoan ibiltzen zituzten gora eta behera. Ez zegoen gatazka armaturik, ezta erailketarik ere. Ateak zabalik egiten genuen lo, indarkeriaren edo lapurreten beldurrik gabe. Arroparen bat ahaztu eta esekita geratzen bazen orubean, baten batek jasotzen zuen, gaueko zirimiriak ez bustitzeko, inola ere ez inork lapurtuko zuen beldurrez.

Ni itsasoz inguratutako auzo batean hazi nintzen, kaleak zurezko zubiak ziren. Oso gustukoa genuen umeok bainatzea, baina arriskutsua izan zitekeen; horregatik, emakumeek, batzuetan, irten egiten zuten, igerian nola genbiltzan begiratzera eta kontu egitera. Garai hartan geneukan parke bakarrera joateko irrikatan egoten ginen. Paseora irteten ginean, txandaka etortzen zitzaigun amaren bat. Igande arratsalde batean, Doña Miriamek 12 ume (bere seme-alabak ere bai) hartuta antolatu zuen parkerako irteera. Amek jartzen zuten bidaiarako dirua, eta *mecato*<sup>5</sup> erosteko dirurik ez bagenuen ere, poz-pozik

---

5 Gozokia edo litxarrerria.

geunden etxetik eta auzotik irteterik bageneukalako jolastera. Seguru eta itxura batean joateko, ilaran eramaten gintuzten, nola jokatu behar genuen argi asko esanda. Bueltan, ume bakoitza etxera eramaten zuten, banan-banan. Batzuetan, komunitateko jarduerak egiten ziren, hala nola zozketak, eta irabaziaz gorde egiten ziren, hurrengo irteeran *cholado*<sup>6</sup> edo txorizoa eros ziezaguten.

Gabonetan, jaiotzak eta bederatziurrenak<sup>7</sup> denen artean antolatzen zituzten, eta umeok poz-pozik hartzen genuen parte. Gure kulturagatik, ez genuen bakoitzak berea etxean egiten, baizik jaiotza bakarra eta bederatziurren bakarra antolatzen genuen auzo osorako. Emakumeek bederatziurrenara joaten ginen neska-mutilentzako opariak banatzen zituzten, eta guretzako jolasak antolatzen zituzten, hala nola *encostalados*<sup>8</sup> lasterketak, *palo encebado*<sup>9</sup> edo itsumandoka. Auzoetan zoragarria zen bizimodua, auzoa bera zen gure etxea, eta etxe handi hartan, emakumeek eramaten zuten elkar zaintzeko estrategia guztia, jendartea bizirik izateko.

Auzoetako bizitzarako funtsezko lan komunitarioaren adibide bat joan den mendeko 80ko hamarkadaren amaieran gertatu zen: gizon-emakumeek erabaki zuten kaleetan bete-lana egitea hondakinekin eta zaborrekin eskuz. Hondakinak ez zituzten betegarri sanitarioetarako erabiltzen, aldiz, zuzenean iritsarazi zituzten gure auzoetara, zorua sendotzeko. Jendeak literalki lurra egin zuen itsasoa zegoen tokian. Artisanu-erako betelanan prozesu horri eta zorua artisanu-betelaneekin (obra-hondakinak, lokatza, egurra, zaborra) sendotzeari *itsasoari irabazitako lurralde* esaten diogu 2012tik.

Prozesu horretan, zaborraren orga iristen zenean, gizonak, emakumeak eta umeak palekin irteten ginen hondakin horiek sakabanatzeko, eta ondoren lokatzez, obra-hondakinez eta, azkenik, balastoz estaltzen genuen. Gero kale horiek gizonak egurrez eginiko ohol-markoekin euskarritzen ziren, itsasoak ez zezan zaborra eraman.

Zaborra iristen zenean, pozarren jartzen ginen denok. Neskatilok panpinak aurkitzen genituen zakar haietan, garbitu eta jolaserako erabiltzen genituen. Emakumeak zoragarri antolatzen ziren: bazkariak prestatzen zituzten, janaria biltzen zuten, hau da, batzuek tipula eramaten zuten, beste batzuek oilaskoa, beste norbaitek bananak eta *papachina*<sup>10</sup>, eta eltze bakar bat prestatzen zuten betelana egiten ari zirenek bertatik jateko, bai eta limonada freskagarria ere denentzat. *Minga*<sup>11</sup> hauek asteburuan izaten ziren batik bat. Egun jendetsuena igandea zen, bizilagunek ez baitzuten lanera joan beharrik, eta atsedean hartu beharrean, topaketa komunitarioa betetzen eta gozatzen zuten: dantzari egiten zuten, barre egiten zuten, bazkaltzen zuten, garagardoa hartzen zuten, lan egiten zuten eta jarraitu beharreko zereginak adosten zituzten. Erabat espontaneoak zen jendarteko dinamika hura, oso berezia, ez zuelako inork konbokatzen. Auzokoren bat pala hartuta zaborra partitzen hasten bazen, apurka beste batzuk ere hasten ziren, edo zabor-kamioia iritsitakoan norbaitek "etorri da *galemba*"<sup>12</sup> esan, eta *galembatzer*a irteten genuen denok. Gizonezkoak normalean asteburutan jarduten ziren honetan. Emakumeak aste guztian jarduten ziren. Etxean egiten zuten lan, eta hangoak amaitzen zituztenean, bete-lanari ekiten zioten.

Denetarik genuen han. Edonolako zaborra jasotzen genuen, sailkatu gabe zegoen. Ospitaleko hondakinak, hondakin organikoak, organiko ez zirenak... eromena zen. Garbi esateko; zaborretan eta zaborrarekin bizi ginen. Gogoan daukat behin nire laguntxo bati zizta egin ziola eskuan (*chuzar*<sup>13</sup> esaten diogu) xiringa bateko orratzak, zakar artean jostailu bila genbiltzala. Handik egun batzuetara eskua handitzen hasi zitzaion, more jarri zitzaion eta gangrenatu egin zitzaion. Beste ume batzuei ere gertatu

6 Harraskatutako izotza, fruta freskoa, esne kondentsatua, marakuia eta masusta saltsa, eta limoi-urez eginiko freskagarria.

7 Debozio-ariketa da, bederatzi egunez egiten dena, grazia bat lortzeko edo asmo jakin bat bete dadila eskatzeko.

8 Joko tradizionala da: jokalariek poltsa handi batekin estaltzen dituzte oinak, eta hura jarrita ibiltzen saiatzen dira.

9 Makil bati koipea igurtzita jokatzen den joko tradizionala. Jokalariek makilaren puntaraino igo behar dute, ez labaintzeko eta helburua lortzeko hainbat estrategia erabiliz.

10 Itsaso Bare inguruko fruta tipikoa.

11 Antolaera propioa, lanen bat egiteko elkar hartzea beharrezko denean mamitzen dena, adibidez, etxea eraikitzeko, bide bat edo kale bat eraiki edo garbitzeko, denek erabiltzeko, edo arriskuan dagoen lurraldea defendatzeko.

12 Zaborra.

13 Punta zorrotza duen zerbaitek ziztatu.

zitzairen, eta helduak zaborretara jaitea debekatzen hasi zitzaizkigun. Beste auzo batzuetan ere ume batzuk zakarretan itota hil ziren, edo tetanosak jota.

Lau urtez edo jardun ginen horretan, auzoa ondo bermatu arte, zorua finko jarrita. Nire umezaroko auzoa guztiz beteta dago gaur egun, eta zoru finkoa dago kaleetan, bertakoen ahaleginari esker eta bizimodu hobea izateko moduko bizi-proiektua pentsatu zuten arbaso gizon eta emakumeei esker. Nola ez dut ba bihotz-bihotzez maiteko nire umezaroko Buenaventura, ni ere jardun nintzen-eta eraikitzen.

## Gure antzinako lurralde kolektiboak... lurralde preziatuak: Indarkeria

2000. urtean hasi nintzen ikusten, lehenengoz, gure auzoan jendea bortxaz hiltzen, talde paramilitarrak Buenaventuran sartzen hasi zirenean. Ordu arte, zahartuta hiltzen zen jendea.

Horren aurretik, gazteok festa-bila ibiltzen ginen auzoz auzo, *buscando fiesta*. Soinu-ekipoa *a toda nota* jarrita non, han gu: dantzan egin, edan, elkarrekin jardun, lagun berriak egin... Jendarteko giroa eta kultura bizi-bizi zeuden. Auzoz auzo ibiltzen ginen, halaxe pasatzen genuen gaua. Plan horixe izaten zuten nire ahizpek, eta garai hartako gazteek.

Gogoan daukat, 90eko hamarkadaren amaieran, batxilergoa ikasten ari nintzela, orduan hasi ginela entzuten Buenaventuran “bandak” zeudela. Bandetan buruzagiak zituzten, *pelaos*<sup>14</sup>; oso ondo moldatzen ziren borrokan. Ez zen armarik izaten tartean, oso iaioak ziren borrokan, eta auzoa auzoaren kontra ibiltzen ziren. Artean txikia nintzen ni, baina nire ahizpak, festa-bila ibiltzen zirenez, “Los Macucos” esaten zitzaion bandari buruz jarduten ziren etxean, sortu ziren aurreneko bandetako bat. 6. komunako El Jardín auzoko *pelaok* ziren, eta Olímpico auzokoekin hasi ziren borrokan. Kolpeka hasi ziren, gerora etorri ziren labankadak eta balak. Elkar hiltzen hasi ziren. Gazteek ezin zuten auzo batetik bestera ibili, muga ikusezinak jarri zituzten eta beste auzoan familiakoren bat izan behar zen hara joatekotan. Garai hartan, baina, ez ginen konturatu hura dinamika paramilitarra zenik. Bandak besterik ez zirelakoan geunden gu, *pelaok* deabruak hartuta zeudela. *Empaupados* esaten zien jendeak, askok buruz ikasita zeuzkaten otoitzak esaten zituztelako borrokatan ari zirela, horrek arerioei dema irabazteko boterea ematen omen ziela-eta. Otoi haiek, arbasoen jakinduriatik jasoak, indarra ematen zieten. Batzuk kristau fedeari buruzkoak ziren, beste batzuk, espiritualitateari lotuak. Iratxoari eginiko otoirik ere bazen; abilitate handiko pertsonaia zen hura, eta haren antzik izanez gero, sekulako borrokalaria izango lirateke. Kredo ere esaten zuten batzuek, atzetik aurrera, indar handiagoa izateko eta kontrakoa mendeen hartzeko. *Pelao* haiek aitarengandik jaso zuten ikasbidea, eta oso abila ziren kontu magiko-erlijioso edo espiritualetan. Bazekiten ondo balei ez ezik, kartzelari ere izkin egiten.

Talde hauetakoak errekrutatu zituzten lehendabizi, eta nik uste konturatu ere ez zirela egin beste interes batzuk zituztenek zerabiltzatela. Atzera begiratuta, nago Buenaventurako muga ikusezinak 90eko hamarkada amaieran hasi zirela.

Horren segidan *chanceroak* sistematikoki erailtzen hasi ziren; alegia, postuetan “*chance*”, apustuak edo zorizko jokoak, loteriaren antzekoak, saltzen zutenak. Enpresa batek joko horren monopolioa bereganatu zuen, eta *chanceroak* auzoetatik kanpoko postu edo bulegoetara bidaltzen hasi zen. Norbaitek ezetz esanez gero, erail egiten zuten. Eta, berriz ere, guri ez zitzaigun bururatu errotzen ari zen dinamika ekonomiko berriarekin lotuta zegoenik hura guztia.

Buenaventurako herri etnikoak oso zakar pairatu du indarkeria, jende zuri-mestizoez mamitu dutelako beti: Medellinetik ekarritako aurreneko sikarioak *chanceroak* erailtzen hasi ziren eta ehorzketen negozioa jarri zuten: horren ondoren, edonor erailtzen hasi ziren, gorputza jasotzera azaldu eta berehala beila edo ehorzketa zerbitzua eskaintzeko. Jendeari etxekoen beila ehorzketa-etxean eginarazten hasi zirenean, orduantxe hasi ginen konturatzen negozioa martxan zutela, ordu arte erritual haiek tradizioz etxean egiten genituen-eta. Indarkeria kriminalezko olde hartan, bururik eta mihirik gabeko gorputzak agertzen ziren nonahi, *sapo*<sup>15</sup> zioten kartelak zintzilik zituztela, hiriko edozein lekutan. Honetaz ari garela, esan beharra dago garai hartan, 80ko hamarkadaren amaieratik 90eko hamarkadaren erdialdera, batik bat

---

14 Herriko hizkeran, gazte edo ume.

15 Herriko hizkeraz, besteen bizimodu intimoari behaka dabilena, hortik ateratako informazioa dirua edo abantailaren bat irabazteko aldera.

beltzak jarduten zirela merkataritza-lanetan Buenaventuran. Gero zurien, *paisen* eskuetan geratu zen dena. Adibidez, San Andresiton ere halaxe gertatu zen; merkataritza-gune tradizionala zen, denda guztiak beltzek zeramatzen, eta bat-batean inor ere ez zegoen. Akabatu egin zituzten denak, hil, handik atera zituzten denak. Ez hori bakarrik; auzoetako izkina estrategikoetan jartzen ziren kaleko saltzaileak hil zituzten. Ondoren *paisaren* bat etortzen zen bere denda jartzera, eta familiari leku horren errenta ordainarazten zien. Ezetz bazioten, andrea, seme-alabak.... dena delakoak hiltzen zituzten. Heriotzak mina eta beldurra eragiten zuen. Jendeak bere dendak saltzen zituen, nola ez, eta, hala, *paisek*, suz eta burdinez, Buenaventurako negozio guztiak berenganatu zituzten, bertako merkataria kale gorrian lagata *puestico* edo negozio informaletan, txikleak, *chontaduroak*<sup>16</sup>, eta jaki frijitu batzuk saltzen. Auzo guztietan gertatu zen halakoren bat, arraina, oreak, *arepak* eta abar saltzen zituzten lekuetan. Gaur egun izkina horiek guztiak *salchipapa* eta janari lasterrez beteta daude, kanpoko jendearen edo *paisen* dendetan. Ekonomikoki haien mende jarri gintuzten, eta negozio-jabe ez, baizik, enplegatu bihurtu gintuzten, edo enplegugabe ere bai.

Bere garaian ez ginen jabetu sarraski hura benetan zenbatekoa zen. Ez genuen ulertu indarkeria hura guztia auzoak kontrolatzeko interes ekonomikotik zetorrela. Beste gazte batzuekin borrokan egiteko entrenatu eta armaz hornitu zituzten gazte haiek izan ziren beren eskuetan forjatutako lehenengo paramilitar belaunaldia. Gerora konturatu ginen hura dinamika paramilitarraren hitzaurrea zela, terrorearen hitzaurrea.

Buenaventurako bertako jendeak uste du *paisa* txarra dela, *paisak* ibili zirelako hasieran irrikatzen, erailtzen, gauzak eta lekuak kentzen, eta, aurrerago, gure gazteei odol hotzez jendea hiltzen erakutsi zirelako. Haiek ekarri zuten sikarriotza. Jendartean “garbiketa” egiten jardun zen aurrenetakoa “La Escoba” esaten zitzaion taldea izan zen. Edadetuek zioten egunez poliziak zirela, eta gaeuz sikario; auzoetako bortxakeriaren kontrako salbatzailatzat agertu eta, beraiek erakarri, entrenatu eta armaz hornitu zituzten haiek asasinatzen zituztelako, “Los Macucos” taldeko gazteak. Jendearen kontzientzia sartu zuten mandilez, lapurrez eta drogazalez garbitu egin behar zela auzoa, eta hala justifikatu zuten “La Escoba” sortu izana. Inork ez zuen ezer erreklamatzeko, jendeak ia-ia zuzentzat jotzen zituen eraiketak. Halaxe errotu zen Buenaventuran dinamika paramilitarra eta halaxe ezarri zen estatuaz aparteko esfera hura instituzio bihurtuta, gaur arte.

Gainera, talde paramilitar haiek drogetan edo substantzia psikoaktiboetan sartu zituzten gazteak, eta ordu arte horrelako arazo sozialik ez zen izan Buenaventuran. Gazteak sanoak ziren, erre ez zuten egiten, oso gaizki ikusia zegoelako; eta helduek besterik ez zeukatelako erretzerik. Gaur egun estrategia arrazista makur horren preso dira gure gazteak.

## Komunitate Beltzen Prozesuan (PCN) izan dudana ibilbidea

17 urte nituen Komunitate Beltzen Prozesuarekin (PCN) bat egin nuenean. Itsaso Bareko Gazteak Garatzeko “Juventud 500” elkartearen bitartez izan nuen prozesuaren berri, PCNren oinarrietako gazte-antolaketa dinamika hiritarra baitzen elkarte hura. Eskoletako ikasleekin lan egiten zuen elkarteak, eta elkarbizitza eta gazteen drogen nahiz alkoholismoaren prebentzioa lantzeko astebeteko prestakuntza-saio batean parte hartzeko izendatu ninduten ni. Izan ere, jendarteko ehundura urratzeko estrategia zen presentzia paramilitarra, eta horrexek ekarri zituen arazo haiek. Haien berri izan, ezagutu eta gustukoa izan nuen egiten zuten lana.

3 hilabete pasa nituen prestakuntza politikoa lantzen, ikasketa-zirkuluen dinamikaren bidez, eta “*Asteazken etnikoak*” izeneko dinamikaren bidez. Sarritan dirurik gabe izaten nintzen arren, handik edo hemendik inguratzen nuen hara joateko lain, eta bueltako bidaia beraiek ordaintzen zidaten. Hantxe pasatzen nuen egun osoa, proiektuak egiten ikasten, nire diskurtsoa hobetzen, tailerrak bideratzen, metodologiak prestatzen, dokumentuen narrazioa egiten, bai eta arrazismoari, legedia etnikoari, izaera kulturalari eta afro kulturari buruzko gaiak lantzen ere. “Juventud 500” elkarteak erakutsi zidan niri etnia, herria eta jendartearekin lotutako politikaren berri. Gero eta gehiago inplikatu ahala, antolakuntzan ere egin nuen nire lekutxo. 2003an, bulegoa itxi beharra izan zuen “Juventud 500” elkarteak, diru-falta zela-eta, eta PCNko bulegoetan jarri zen.

16 Itsaso Bare inguruko fruta tipikoa.

Garai hartan sartu nintzen PCNko giza eskubideen taldean. Oso egoera bihurria izan zen hura, hasieran batzuek ez nindutelako onartzen, emakume zuria nintzelako. Beste batzuek, ordea, adibidez, Victor Vidal-ek, gaur egun Buenaventurako alkate hautetsia denak, ondo hartu ninduten, eta antolaketa-prozesuan laguntzerik banuela eta lagundu nahi nuela sentitu nuen nik.

Indarkeria-kasuei buruzko dokumentazio-prozesuak egiten hasi nintzen, batez ere bortxazko desagerpen-kasuei buruzkoak. Oso ugariak ziren garai hartan, 2000. urtean Buenaventuran indarkeria denak emanda zebilen-eta. Gainera, sarraski sistematikoen garaia izan zen hainbat ibaitan eta landa-eremutan: Nayako sarraskia, Yurumanguikoa, Katangakoa, Raposokoa eta Sabaletasekoa. Ez zegoen dokumentazio-lan hori egingo zuenik, eta nik esperientziarik ez banuen ere, ni neu hasi nintzen horretan, biktimei lagun egiten, ibaietan hobiak irekitzeko prozesuetan parte hartzen, doluak lantzeko tailerrak egiten, biktimak burujabe egiteko tailerrak antolatzen...eta halaxe, apurka-apurka, giza eskubideen defentsan aritzeko prestatu nuen nire burua.

Informazio horrekin, giza eskubideei buruzko txosten autonomoak ematen zituen urtero PCNk. Prozesu horri esker, 2000tik 2011ra bitartean Buenaventurako indarkeriak sistematikoki dokumentatzeko moduan izan gara, eta horrek nire lekua eta aintzatespena ekarri zizkidan elkartean. Hasiera batean, ez nintzen PCN ordezkatzera ateratzen militante askok ez nindutelako emakume beltz jotzen. Ondoren, poliki-poliki, nire lan politiko-antolatzailea aintzat hartu zidaten, erakundearen barruan ahotsa eta tokia izan nuen, baita Buenaventuran ere.

PCNk bazeukan arrazakeriaren aurkako diskurtsoa. Nik, oso txikitatik, kontzientzia politikorik izan gabe, banuen zera bat kontu horrekin, nire ama zela eta. Asko ibiltzen zen liskarretan aitarekin, ia gorroto nion, ama hain era arrazistan tratatzen zuelako. Berak eta aitaren aldeko osaba-izebek arrazakeriaz egiten zioten. Ni ama animatu nahian ibiltzen nintzen, *pordebajiar* egiten ziolako bere buruari, alegia, gutxietsi egiten zuelako bere burua, inoiz ez zuelako irakurtzen ikasi. "*Nik ez dakit ikasten, ezjakina naiz*", zioen beti. Beraz, PCNrekiko hurbiltasuna, batez ere gai honetan, amaren egoeratik piztu zitzaidan, haren sufrimendutik, eta ama niretzat zenagatik. Etniarekiko kontzientzia hartzen hasi nintzenean, elementu gehiago izan nituen harekin hitz egiteko eta mediku tradizional gisa zituen ezagutzak eta praktikak baloratzeko.

## Eraginak

Hasiera batean, ez nion tamaina hartu PCN elkartean giza eskubideen alde lanean aritzeak zekarren arriskuari: bazetorkidan jendea, ematen nien arreta, entzun eta harrera egiten nien. Kasua egituratu, eta biktimei laguntza juridikoa eta politikoa emateko egin beharrekoa egiten nuen.

2012an esperientzia politiko handiagoa nuen. Egoera oso konplexua izan zen, jendearen sufrimendua iritsi zitzaidalako: seme-alabak edo senarra galdu zituzten amen eta emazteen minaren lekuko izateak tristura handiz betetzen ninduen. Lo egin ezinik hasi nintzen. Egunero iristen zen jendea, eta nirekin nahi izaten zuten hitz egin, ez beste inorekin. Asko, ezagutzen ez baninduten ere, nire bila etortzen ziren, besteren batek ni aitaututa: "*Zoaz PCNra, eta esan Danellyrekin nahi duzula hitz egin*". Zaintzaren etikarik gabeko gainkarga emozional horrek ahitura eta neke handiko egoera psikoemozionalera eramanez ninduen, eta nekez jarrai nezakeen minezko eta ezintasunezko istorioak entzuten jendeari. Telefonora deitzen zidatenean, honako hau erantzuten nuen: "*Ez, esan ez nagoela Buenaventuran*". Nahi ez hori nire minarekin lotuta zegoen, eta laguntza bilatu nuen.

Garai hartan ezagutu nuen AVRE, Kolonbian biktimei laguntza psikosoziala ematearekin lotutako ibilbide indartsua duen erakundea, eta haiekin prestatzen jardun nintzen, 4 urtez. Kontzientzia handiagoa hartu nuen nire buruari ondo kontu egin beharraz, eta jabetu nintzen elementu gehiago eduki behar nituela, kasu egiten nion jendearekin zer konpartitu edukitzeko. Mugak jartzen ere ikasi nuen, orduan inongo mugarik ez neukan-eta: 12 orduz egoten nintzen lanean biktimei entzuten, etxera iritsi, eta esandakoa transkribatzeari ekiten nion. Asko teknifikatu nintzen. Grabagailua ere baneukan garai hartan, eta arreta handiagoa jar nezakeen, hobeto entzun. Biktimei euste-mekanismoak aplikatzen ikasi nuen, informazioa atera zedin, eta kasua ez zedin galdu. Aldi berean, biktimentzat gogoetak prestatu nituen, azaltzeko jasaten ari ginen indarkeria krudel hura ez zela jainkoaren zigorra ez eta gure errua ere; azaltzen nien ez zirela gaiztoak eta ez zutela haiek eragin indarkeria, baizik izuaren bitartez herritarrek menderatzeko

estrategia bat zela. Torturak indarkeria eredugarria ziren. Jendearen aurrean erakutsi behar horrek izu psikologikoaren bidez jendea menderatu nahia zuen oinarrian. Hausnarketa horiek testuinguru politikoan jartzen zuten indarkeria, itxaropena ematen zien biktimei, autoestimu indibiduala eta kolektiboa berriz eraikitzen lagundu zien, eta justizia exijitzen jarraitzeko indarra eman zien. Lanaldi osoko lana zen, inolako ordainsaririk gabe. Beti izan naiz boluntario PCNn, eta bizimodua irabazteko egiten dudana gizarte-aholkulari lanak ez dit lan komunitarioan ematen dudana denboraren erdia ere betetzen.

Garai hartan gabezia ekonomikoak genituen. Ez nuen dirurik alabaren eta bion oinarrizko gastuak ordaintzeko, jana, etxebizitza, jantziak, garraioak, eskolako tresnak... Hala ere, giza eskubideen aldeko lana bizitzeko era bateko erabakia da, eta elkartasunez lagundu eta zerbitzatzea da nire grina. Ezin nuen lasai egon, nire laguntza behar zuenaren alde itxurazko zer edo zer egin arte. Pentsa: bulegora iritsi, eta egunero-egunero norbaiti eskatu behar nion dirua etxera bueltatzeko, edo taxia ordaintzeko. Eta halaxe pasa ziren 7 urte baino gehiago, krisia izan nuen arte. Nire baitan esan nuen: *“Hemen nago, profesionala naiz, ikasketak burutu nituen eta berdin jarraitzen dut, bidaia ordaintzeko eskatzen oraindik, baina hauxe gustatzen zait egitea...”*. Buenaventuratik alde egin nuen orduan, eta unibertsitate batean hasi nintzen lanean, baina preso sentitzen nintzen. Sentitzen nuen ez nabilela egin nahi nuena egiten. Orduetegi bat betetzen ari nintzen, 2 milioi pisu irabazten ari nintzen, eta inoiz ez nuen halakorik irabazi mahai baten aurrean eserita egoteagatik, ezertxo ere egin gabe. Alferrikakoa sentitzen hasi nintzen, uko egin nion postu hari eta berriro itzuli nintzen Buenaventurara, 4 hilabete igaro ondoren.

Une horretan, PCNn baziren operadoreek finantzatutako proiektu batzuk, eta lehen aldiz lotu ninduten gizarte-arloa koordinatzeko proiektu batera, diru apurtxo bat eta guzti. Egoera oso gogorra zen, dena somatizatzen jarraitzen nuelako eta lo egin ezinez eta kolon-arazoekin agertzen nuelako barrukoa... pilatutako mina neukan. Zorionez, oraindik ez neukan mehatxurik. Inork ez zidan jazartzen, inork ez zidan enbarazurik egiten. Min eta tristura uneak nituen, baina nire irtenbideak ere banituen, nire ihesbideak. Bizitza normala bizi nuen; gero ez, ordea.

## Indarkeriaren azterketa

2004an, portu-enklabeko dinamika ekonomikoa finkatzen hasi zen Buenaventuran. Urte horretan, Nomadesc elkarteak eskainitako Giza Eskubideen Diplomatu batean parte hartu nuen. Hizlarietako batek Buenaventurako egoeraren eta portuko megaproiektuen dinamikaren irakurketa geopolitikoa egin zuen, garai hartan jada planteatuta baitzeuden: Tribugáko portua eta ur sakoneko portua. Hizlariak azaldu zuenez, portuak sendotzeko aurreneko pausoa zen indarkeria kriminala. Saio hartan 45 pertsona inguru geunden, guztiak PCNko liderrak, hiri- eta landa-dinamikatakoak. Diplomatu amaitezean, honela jardun genion elkarri: *“Burutik jota dago alproja hori! Nondik atera ditu kontu horiek?”*

Pertsona askok gerora ahaztu egin zituzten planteamendu haiek. Niri buruan geratu zitzaizkidan, hariak eta, handik gutxira, lehen borroka egin genuen arte Bahía Málaga ur sakoneko portua jartzearen kontra. Erreserba naturala zen, eta biodibertsitate handiko itsas ekosistema oso garrantzitsua zeukan (arrainak, haztegiak, krustazeoak, mangladiak, sostengu-basoak). Portu hori eraikiko zela iragarri zenean, 2006an, indarkeria izugarri zabaldua zegoen Buenaventuran. Testuinguru horretan, Bahía Málaga komunitateak laguntza eskatu zuen, eta orduan hasi ginen hari-mutur guztiak lotzen: *“Begira, ahaztu egin zaie portu hori izan zela Diplomatu gizon hark aztertu zuenetako bat; berak esan zuen hemengo portua jada ez zela nahikoa izango, eta kanporago beste zer edo zer eduki beharko zutela, sakonera handiko itsasontziak kargarekin iritsi ahal izateko”*.

San Buenaventura Unibertsitatean, Caliko egoitzan, portu berriaren eraginei buruz eztabaidatzeko foro bat proposatu genuen ekintza politikoan jarduteko. Espazio horretara dei egin genion Kolonbiako Senatuko Giza Eskubideen Batzordeari, eta portuak Bahía Málaga antzinako lurraldeko gizakiengan nahiz biodibertsitatean izango lituzkeen inpaktu handi eta neurrigabeak eztabaidatu genituen. Prozesu horretan, bertako komunitateekin batera, alegia, bertako betiko jendearekin batera, lurralde hori babestea lortu genuen. Horretarako, Haraneko eta Nazioko Departamentuak biodibertsitatea kontserbatzeko eremu babestu gisa aitortu zuen ingurua, Bahía Málaga Uramba Parke Nazional Naturala izendatuta. Horrela, ur sakoneko portua sendotzea eragotzi zen, eta, urte batzuk lasai egon ginen arren, 2013an TCBuen portua eraikitzen hasi ziren, Buenaventurako hiri-eremuan; eta horrek duarik gabe erakutsi

zigun dinamika hori zuzenean lotuta zegoela bizi genuen indarkeria lazgarriarekin, eta horrekin batera, portuetako megaproiektuak martxan jartzearekin.

Ordura arte, ez genuen lortu egoerari buruzko begirada erregional edo nazionala izatea, eta indarkeriari buruzko diskurtsoa bagenuen ere, ez genekien oso ondo nondik zetorren. Zein zen Buenaventuraren arazo nagusia?: indarkeria. Baina diskurtso laua zen hura, lau-laua. Bertara zetozen denek gauza bera zioten: Buenaventuraren arazo nagusia indarkeria da. Buka zedila eskatzen genuen, inongo azterketa kritikorik egin gabe eta konturatu gabe indarkeria hura ez zela amaituko, eredu ekonomiko zitalarekin bat baitator.

Soziologo naizen aldetik, testuinguruaren irakurketa egin nuen, eta Buenaventuran gertatzen zenari buruzko egiturazko azterketa egiten hasi nintzen, azalpen erraz eta sendoen bidez; eta erakusteko moduan nintzen indarkeria hura indarkeria instituzionalizatua zela, Estatuak sustatua, eskubideen bermatzaile izanda zegozkion ardurak egitez edo ez eginez, enpresa-talde handiak babesten zituelako. Estatuak interes partikularren aldeko legeak egiten ditu, eta indar publikoa erabiltzen du antzinako eskubideak galdegiten dituzten komunitateak eta liderrak mende hartzeko, zigortzeko eta beldurtzeko. Aldi berean, zabarkeriaz jokatzeko du eskubide etniko kolektiboak ziurtatzeko garaian. Gainera, azterketa horrek planteatzen du Buenaventura ez dela indarkeriaren biktima, garapen-ereduaren biktima baizik, indarkeria ez baita berez helburu bat, baizik bitarteko huts bat; portu-enklabe eredu ekonomikoa sendotzeko bitarteko bat, estrategia besterik ez. Ildo horretatik, enpresa-estatuak, Estatuak eta enpresaburuek bultzatutako garapenaren biktima garena diogu, Buenaventuran ezarri eta mantendu zuten indarkeria haren onuradun nagusi diren biktima. Azterketa horrek asko gogaitzen ditu inbertitzaile boteretsuak, agerian jarri dituelako indarkeriaren benetako aurpegiak, eragileak eta egile intelektualek, eta bigarren mailan uzten dituelako indarkeriaren bideratzaileak, horiek ere, aldi berean, nekropolitikaren biktimak baitira.

## Mehatxuak

Lehen mehatxu zuzena 2015eko azaroan iritsi zitzaidan telefono mugikorrera, 17:30ak inguruan, testu-mezu baten bidez, lantokira, unibertsitatera, nindoanean. Hauxe zioen: *“Danelly, zureak egin du”*. Kode baten bidez etorri zen mezua: Hainbat aldiz irakurri nuen, eta 20 minutu inguru behar izan nituen mehatxua zela konturatzeko. Eta nire artean pentsatu nuen: *“Zer egin du ba nireak?”*.

Mezua Erakunde arteko Batzorde gisa geneukan talde bati bidali nion, eta denen artean baloratu ondoren, benetan ere mehatxua zela konfirmatu zidaten lankideek. ACNURen<sup>17</sup> lan egiten zuen lagun on batekin hitz egin nuen. Hark esan zidan kodeak ofiziala zirudiela, Biktimen Unitatean dauden pertsonen mezuak bidaltzeko erabiltzen dena, nahiz eta nik ez nuen adierazi indarkeriaren biktima nintzenik.

Bien bitartean, unibertsitatera iritsi nintzen, mehatxuaren ziurraz jabetuta. Sei hilekoko azken eskola-eguna zen. Gogoan hartzeko moduko klasea izan zen. Portu-kapitalaren dinamiken inguruko tokiko problematika aztertzen ari ginen ikasleekin, mikrosoziologia eginez. Irakasle askok nahiago zuten Durkheim, Weber edo Marx irakatsi, ez zuten Kolonbiako egoera aztertzen, are gutxiago Buenaventurakoa. Nire gelan Kolonbiako azterketa soziologikoa egiten genuen, eta landa-irteerak ere antolatzen genituen Buenaventura hiritarrera, bertan bizi ziren ikasleek ez zuten ezagutzen-eta. Hiriko egunerokotasuna behatu eta kritikoki arrazoitzen genuen; TCBuen eta halako enpresen inpaktuagatik jendeari kentzeko arriskuan zeuden lurraldeak bisitatu genituen -nik kasu horixe aztertu eta dokumentatu nunez gehien- ikasleek planteatutako analisia landu eta elika zezaten. Gai horri buruz mamitu zituzten analisiak, ekarpenak, gogoetak eta eztabaidak azaldu zituzten egun hartan, eta oso dinamika polita sortu zen. Eskola amaitu eta gerora ere, ikasleek bertsoak eta olerkiak errezitatzen eta kantuan segi zuten. Bizi genuen errealtatea ulertzeko lan pedagogikoa izan zen, oso hunkigarria, mina negarraren bidez ere adierazi baitzen, terapia kolektibo gisa. Oso pozik nago jakinda sentsibilizazio- eta pedagogia-ariketa horren ondoren, ikasleen erdiak baino gehiagok problematika horri buruzko monografia egitea erabaki zuela. Esango nuke lana ondo egin zela adierazten duela horrek.

Klasea amaitu ondoren, bi lankide etorri zitzaizkidan bila, Errefuxiatuen Jesuita zerbitzuko bata, eta

---

17 Iheslarietako Nazio Batuen Goi Komisarioa.



CODHES zerbitzuko beste, haietako baten *carroan*<sup>18</sup>. Ikusi nituenean, esan nuen: “*Hara! Kontu serioa da, gero!*”. Ez nuen inoiz pentsatu hori gerta zekidanik.

Etzera iritsi nintzen eta nire lagunarekin hitz egin nuen, eta hark Bogotako Biktimen Unitatean egin zituen ikerketen berri eman zidan. Han kodea egiaztatu zuten, eta baieztatu zuten zenbaki horretatik ez zela mezurik atera nire telefono-zenbakira. Hala ere, adierazi zioten abisuak jasota zituztela Estatuko kode hori eta beste batzuk lurraldeetan jendeari mehatxuak egiteko erabiltzen zituztela-eta, hau da, jakinaren gainean zeuden kodea klonatu egin zutela.

Lagunak gomendatu zidan maleta egin eta bere etzera joan nendila alabarekin, zer egin pentsatzeko. Bat-batean, ahots distortsionatu bat sartu zen gure telefono-elkarrizketan: “*Badakigu non zauden, badakigu non zauden*”. Zur eta lur geratu nintzen. Oihuka hasi zen nire laguna. Belarria adi jarraitu genuen biok, baina ezin izan nuen jasan, eta ohera bota nuen telefonoa. Lagunak entzuten jarraitu zuen. Izugarria izan zen, negar-negar jardun nuen nire gauzak pilatzen nituen bitartean, neskatxoa esnatu nuen eta lagunek beste lagun haren etzera eraman ninduten.

Hurrengo egunean bertan jarri genuen salaketa, Fiskaltzan. Argi zegoen larderia haien urte hartan egindako lanaren ondorena zirela; urtebete generaman erakusten Buenaventurako portua ez zela aukera, baizik gure eskubide kolektiboak ziurtatuta edukitzearen kontrako mehatxua. Urte hartan bertan “*Más Puerto, menos comunidad*” (*Zenbat eta portu gehiago, komunitate gutxiago*) ikerlana egin nuen, Inmaculada eta Santa Fe auzoetako kasuak aintzat hartuta, bi komunitate horietan TC Buenek portua handitzeko egindako lanen inpaktu txarrak dokumentatzeko. Dokumentu horrek asko sentsibilizatu zituen irakurleak, hizkera erraz eta argian idatzita baitzegoen, letra handitan inprimatuta eta argazkiz lagunduta. Gainera, unibertsitatean zabaldu zen eta erreferentzia bihurtzen hasi zen<sup>19</sup>. Tokiko ikertzaile gisa ere hartu nuen parte Memoria Historikoaren Zentro Nazionalak sustatutako “*Buenaventura, un puerto sin comunidad*” (*Buenaventura, komunitaterik gabeko portua*) ikerketa-prozesuan. Liburuak eragin handia izan du, egia argitzen laguntzen baitu Kolonbiako gerraren testuinguruan. Gainera, liburuaren aurkezpen publikoan hitzaldi sendoa eta hunkigarria eman nuen, leporaino betetako auditoriumean. Indarrez eta itzaropenez beteriko terapia izan zen niretzat ekitaldi hura<sup>20</sup>.

Ordurako, aliantza bat eginda geneukan Taula Catalana per la Pau i els Drets Humans a Colòmbia izeneko erakundearekin. Plataforma hori ikerketak egiten ari zen Bartzelona markaren inbertsioei buruz, bai eta beste lurralde batzuetan izaten ari zen inpaktuei buruz ere. Hortik sortu zen “*Asedio a las comunidades. TC Buen, una empresa catalana en Buenaventura*” ikerketa (*Komunitateen jazarpena. TC Buen, Kataluniako enpresa bat Buenaventuran*), eta nik ere egin nion nire ekarpena.

3 ikerketa garrantzitsu izan ziren, eta Europatik bira bat egin genuen politikan eragiteko asmoz. Orduan izan nintzen lehen aldiz Bartzelonan. Lortu genuen Kataluniako Parlamentuak ebazpen bat ematea, zeinaren bidez konpromisoa hartu baitzuten behatoki bat sortzeko, atzerrian inbertitzen duten enpresa katalanen jarraipena egiteko. Buenaventura eredu-kasutzat hartu zen, ongien dokumentatutako kasuetako bat delako. Ekintza horiek haserrea piztu zuten TC Buen-eko enpresaburuen artean. Gainera, mehatxuak areagotu egin ziren, bai nire analisi kritikoengatik— “*Victimas del desarrollo*” (*Garapenaren biktimak*) laneko argudio sendo eta indartsuengatik, besteak beste—, bai etengabeko erreferentzia bihurtu nintzelako auzo-komunitateentzat, ongi ezagutzen eta dokumentatzen baintuen haien problematikak. Lehenik, La Inmaculada auzoko emakumezko lider bat mehatxatu zuten, eta handik 15 bat egunera, niri iritsi zitzaizkidan mehatxuak.

<sup>18</sup> Autoa.

<sup>19</sup> Danelly Estupiñán Valencia. MÁS PUERTO; MENOS COMUNIDAD: impacto de la estrategia económica de ampliación portuaria en Buenaventura. Caso: barrio La Inmaculada Concepción, Comuna Número Cinco de Buenaventura. <https://renacientes.net/blog/2019/03/30/mas-puerto-menos-comunidad-impacto-de-la-estrategia-economica-de-ampliacion-portuaria-en-buenaventura-caso-barrio-la-inmaculada-concepcion-comuna-numero-cinco-de-buenaventura/>

<sup>20</sup> <sup>20</sup> NOMADESC elkarte. Txostena: Buenaventura, un puerto sin comunidad. Ekainak 21. 2015. <https://www.youtube.com/watch?v=2GwDpMWy0Ms>

## Lehen lekualdaketa

Gertatutakoa ikusita, erabaki genuen hobe genuela Buenaventuratik alde egin hilabete eta erdiz. Gabonak ziren, eta abenduan erakundeak “desagertuta” daude; beraz, zaurgarriagoa nintzen egoera horretan. Zerbait gertatuko balitzait, ez nuke inongo babesik izango.

Urtarrilaren 15ean itzuli nintzen. ACNURek gomendatuta, segurtasun-eskema<sup>21</sup> eskatuta geneukan, eta 2016ko martxoan jarri zuten abian lehenengo aldiz. Nire bizimodu dinamikoari eutsi nion, profila ez jaiste erabaki baitzen autobabeserako estrategia gisa. “*Víctimas del desarrollo*” lanari buruzko entzunaldia egin genuen, Errepublikako Senatuko Giza Eskubideen Batzordeak eskatuta, Valle Unibertsitatean, Pazifikoko egoitzan, Buenaventuran. Oraingo honetan, Kataluniako ordezkari bat etorri zen, besteak beste parlamentuko zenbait kidez osatua. Han, mehatxuak gorabehera, eta jendeak eskatu zidalako, azaldu nuen zer gertatzen ari zen auzoetan, beldurra atzean utzita, eta injustiziaren aurka lanean jarraitzeko konpromisoa berretsita<sup>22</sup>.

Jarraian, ekintza batzuk egin genituen Taula Catalanarekin batera, nire kasua nazioartean ezagutarazteko. Taula Catalanak argi adierazi zuen giza eskubideen alde egiten nuen lanarekin, alegia, nire aktibismoarekin lotuko zutela nire osotasun pertsonalaren kontrako edozein eraso. Adierazpen hori oso baliagarria izan zen mehatxuei aurre egin ahal izateko. Lasai egon nintzen bi urtez.

## Lurraldean duintasunez eta bakean bizitzeko Lanuzte Zibikoa

Buenaventuran, oinarriko erakundeok erabaki genuen elkartzea prozesu bat antolatzeko: **Lurraldean duintasunez eta bakean bizitzeko Lanuzte Zibikoa** deitu genion. Helburua honako hau zen: kolektibo moduan eskakizunen agiri bat aurkeztea gobernu zentralari, Buenaventura bizitzen ari zen Konstituzioaren aurkako egoeratik<sup>23</sup>. Hain zuzen ere, hiriak 30 urte baino gehiago zeramatzen krisian, eta krisi horrek oinarriko eskubideei eragiten zien, hala nola osasunari, etxebizitzari edo hezkuntzari, ez baitzeuden bermatuta, bai eta lurraren jabetza-eskubideei ere. Azkenik, 2017ko maiatzean, Buenaventura gelditzea erabaki genuen. Protesta sozial bat izan zen, eta Buenaventurako herri osoak legitimatu zuen. Prozesu hori nahitaezko erreferente bihurtu zen, goitik behera aldatu baitzuen hiriaren historia. Bi Buenaventura izango ziren harrezkeroztik: lanuztearen aurrekoa eta ostekoa.

Hasieran, Lurraldeko Mahaian egon nintzen; PCNren aldarrikapen handienetako bat zen mahai hura sortzea. Manifestazio baketsuak antolatu ziren, baina ESMADen<sup>24</sup> indar errepresiboek giza eskubideen urraketa larriak egin zituzten. Orduan, Giza Eskubideen Mahaia sortzeko beharra ikusi genuen. Giza eskubideen babesaren arloan eskumena duten gobernuko ordezkariak egongo ziren mahai horretan, bai eta gu ere, oinarriko erakundeetako liderrak. 2017ko maiatzaren 19an, pertsona batzuk *lanuzte zibikoan* infiltratu ziren, gizarte-protestari zilegitasuna kentzeko asmoz; ordena publikoa larriki asaldatu eta arpilatzeak eta lapurretak egin zituzten. Bada, egun hartan jarri zen martxan Mahaia.

Aldi berean, Giza Eskubideen Behatzailtza izeneko gune autonomoa sortu genuen. Gertatzen ari ziren urraketak erregistratzen eta dokumentatzen hasi zen Behatzailtza auzoetan, ospitaleetan eta osasun-etxeetan. Zaurituak bisitatu genituen, eta aztertu genuen zer zauri zituzten, norik eraso zien,

---

21

Babeserako Unitate Nazionalak (UNP), Barne Ministerioari atxikitako segurtasun-erakundeak, estrategiak garatzen ditu pertsonen, taldeen eta komunitateen beren jardueren ondorioz jasaten dituzten arriskuak, mehatxuak eta zaurgarritasunak aztertzeko eta ebaluatzeko, eta banakako edo taldeko babes-neurriak ezartzen ditu pertsona horientzat. “Segurtasun-eskema” esaten zaie bizitzeko, askatasunerako, osotasunerako eta segurtasunerako eskubideak babesteaz arduratzen diren zerbitzuei, eta askotarikoak izan daitezke, arrisku-mailaren arabera: telefono mugikorrak, izu-botoiak, auto blindatuak edo eskolta armatuak, besteak beste.

22 <sup>22</sup>Nomadesc elkarteak. “AUDIENCIA PÚBLICA VÍCTIMAS DEL DESARROLLO Y ESTADO DE COSAS INCONSTITUCIONALES EN BUENAVENTURA” (ENTZUNALDI PUBLIKOA: GARAPENAREN BIKTIMAK ETA KONSTITUZIOAREN AURKAKO EGOERA BUENAVENTURAN) . Ekainak 28. 2016. <https://www.youtube.com/watch?v=8H8JM3FTPm4&t=80s>

23 Gorte Konstituzionalaren 2004ko T025 epiaik “Konstituzioaren aurkako egoera” deklaratu zuen Buenaventuran.

24 Istiluen aurkako eskudroi mugikorra, Polizia Nazionalaren unitate berezia.

zein zen haien egoera emozionala eta juridikoa. Orduan, atxiloketa masiboak egiten hasi ziren. Jendea epaitzen ari ziren entzunaldietan parte hartzen genuen. Oso lan neketsua izan zen. Komunikatuen bidez ikusarazi nahi genuen zer gertatzen ari zen Buenaventura barruan. Herrialde osoari jakinarazi nahi genion estatuak indarkeriara jo zuela soilik herri marjinatu, pobretu, bereizi eta bortxatu batek erabaki zuelako protesta sozial eta baketsurako eskubide konstituzionala baliatzea oinarritzko eskubideak aldarrikatzeko; edateko ura izatea, adibidez. 11 arro hidrografiko dituen hiri honetan, ura ez da etxeetara iristen, baina bai enpresetara eta hoteletara.

22 egun eta gau luze iraun zuen protestak. Kaleak benetako gudu-zelai bihurtu ziren. ESMADek gaizkileak bagina bezala tratatu gintuen: hildakoak izan ziren, gazte batzuek begiak galdu zituzten, beste batzuk fusilen balaz zauritu zituzten. Hala ere, ez genuen amore eman, eta azkenean lortu genuen Estatu eseraraztea gure eskakizunen agiria negoziatzeko. Etengabeko harremanetarako agertoki bat eratu zen Buenaventurako funtsezko arazoak konpontzeko, eta eskakizunen edo eskubideen negoziazioak bost egun iraun zuen. Bertako telebistan ikusi ahal izan zen, eta horrek are gehiago hauspotu zuen herria. Jendeak bertako katea piztu eta egunak eta gauak pasatzen zituen negoziazioak ikusten. Egun horietako batean, Estatuak ez zuen amore eman nahi negoziatio-mahaian, eta garraio publikorik ez zegoenez, Buenaventurako herria kalera atera zen; ibilaldi ikaragarri bat antolatu zuten bat-batean. Olatu erraldoi baten modura, ehunka pertsona bildu ziren negoziatioa egiten ari ziren hotelaren aurreko plaza txikian, eta protestaren leloa abesten hasi ziren denak batera: **“Vamos pueblo, carajo; el pueblo no se rinde, carajo; por Buenaventura, carajo; para que nos respeten, carajo...”**. (Aurrera, herria, arraioa!; herriak ez du amore emango, arraioa!; Buenaventuragatik, arraioa!; errespetatzen gaitzaten, arraioa!...) Kantuek erabat hunkitu zituzten negoziatioetan parte hartzen ari ziren Lanuzte Batzordeko kideak. Indarra eta adorea eman genien, eta itxaropentsuago itzuli ziren mahaira, haserre kolektiboaren adierazpen ikaragarri hura ikusi eta sentitu ondoren.

Oso harro nago gobernantza komunitario, etniko eta herrikoi horren parte izateaz, eta benetako pribilegioa izan da niretzat. Lanuzte Zibikoaren prozesua gobernu burujabearen eta demokrazia legitimoaren agertokia izan zen; obra publikoak definitu zituen, bai eta ingurumen-, gizarte-, kultura- eta ekonomia-proiektuak planifikatu ere, Buenaventurak bere duintasuna berreskura zezan. Izan ere, ordura arte, tokiko gobernuak ez ziren gai izan ondasun publikoak gure mesederako kudeatzeko, eta urte askoan dirua lapurtu zuten; gure oinarritzko eskubideak (osasuna, hezkuntza, etxebizitza, kirola) bermatzera bideratutako dirua. Diru xehea balitz bezala erabili zituzten baliabide publikoak, eta gure eskubide kolektibo eta indibidualekin trafikatu zuten. Azken bost alkateek ustelkeriarekin eta legez kontrako aberastarekin lotutako delituak egin dituzte, eta azken hirurak kartzelan daude. Horregatik, mugimenduak hautagai bat proposatu zuen, Buenaventurako lehen alkate zibikoa izan zedin, eta protesta soziala gobernu zintzoa gauzatzuz osa zezan. Zorionez, lortu genuen helburua.

## Jazarpenak

Lanuzte Zibikoaren akordioa sinatu eta egun gutxira, konturatu ginen pertsona batzuk gure errutinak zelatatzen ari zirela. Militar itxurako gizon zuriak ziren, eta jokabide susmagarria zuten. Leku guztietan ikusten genituen: jatetxeetan, kalean, topaguneetan. Beti ari zitzaizkigun argazkiak ateratzen eta bideoak grabatzen. Zelatariak toki jakinetan egoten ziren eta pertsona zehatzak zelatatzen zituzten, batez ere Behatzailtzako kide ginenak.

Giza Eskubideen Mahaian salatu genituen jazarpenak; gobernuko eta komunitate antolatuko ordezkariak biltzen ditu mahai horrek. Egoera oso larria zela ondorioztatu zuen mahaiak. Gizon horiek lankide batzuen etxeetaraino joaten ziren, argazkiak ateratzen zizkieten, planoak marrazten zituzten, eta motorretan jarraitzen ziguten. Gertatutakoa jendaurrean salatzean, egoera kontrolatzea lortu genuen. Ia 3 mahai osatu ziren gaia eztabaidatzeko. Garai hartan, María Miyela Riascosek jasan zuen jazarpenik handiena. Lanuzte Zibikoko Batzorde Exekutiboko ordezkaria zen Giza Eskubideen Mahaian. Jazarpenek 2017ko maiatzetik abendura arte jarraitu zuten. Orduan niri hasi zitzaizkidan segika, eta ACNURek herrialdetik irteetako gomendatu zidan. Hainbat adierazpen eginak genituen; nazio mailako prentsaurrekoak eman genituen, eta albistegietan atereak ginen egoera salatzeke. Uztailen, txostengile izan nintzen CIDHeK<sup>25</sup>

Perun antolatutako biltzar berezian. Han azaldu nuen Buenaventurak protesta sozialaren harira bizi izan zuen egoera larria.

ACNURen gomendioari kasu egin eta herrialdetik irten nintzen 2018ko uztailean, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programaren babespean. Jazarpenek jarraitu egin zuten 2018ko urtarriletik uztaileara arte, alegia, alde egin nuen arte. Hala ere, orduan ez nituen zelatatze horiek idatziz jasotzen. Abenduan, Euskal Herritik itzuli nintzenean, ez zen aparteko ezer gertatu; edo ni behintzat ez nintzen konturatu. 2019ko urtarrilean, ordea, berriz hasi zitzaizkidan segika, eta orduan erabaki nuen gertaera horiek idatziz jasotzea.

## Prozesu judiziala

Giza Eskubideen Mahaian erabaki genuen froga sendo horiek entregatzea CTIko<sup>26</sup> agenteei. Alegia, Lanuzte Zibikoan eta haren ondoren izandako giza eskubideen urraketak ikertzen ari ziren agenteei. Horren harira, “testuinguru-elkarrizketa” bat egiteko aukeratu ninduten. Buenaventuran giza eskubideen aldeko prozesu historikoak gidatu dituzten eta indarkerien azterketan sakondu diren pertsonen egiten zaizkie elkarrizketa horiek, ikerketaren testuingurua osatzeko. 2018ko abenduan eman nuen nire testigantza, Euskal Herritik Buenaventurara itzuli berri nintzela. Indarkeriaren eta eredu ekonomikoaren arteko lotura azaldu nien, eta Bugako CTIko agente bati eman nizkion lehenbiziko frogak. Fiskaltzak beste elkarrizketa bat egiteko eskatu zuen, 2019ko otsailean.

Bigarren elkarrizketan galdetu zidaten ea berriz jazarri ninduten. Bi hilabete horietan frogak biltzen jarraitu nuen, eta CTIko maila zentralerako beste agente bati eman nizkion. Azaldu nion gainerakoak lehen elkarrizketan aurkeztu nituela. Agentea sisteman bilatzen hasi, eta esan zidan frogak horiek ez zirela ageri nire espedientean. Horrek asko harritu ninduen, eta Giza Eskubideen Behatzaileari jakinarazi nion gertatutakoa. Azaldu nien ikertzaileari beste frogak batzuk entregatu nizkiola, aurrekoak ez zirelako agertzen.

Uztailaren hasieran, kereila bidez salatutako delituen Buenaventurako 21. fiskalak deitu zidan telefonoz. Nor zen esan ondoren, jakinarazi zidan fiskaltzara joan behar nuela adiskidetzeko-entzunaldia egiteko, nire aurkako bi demanda baitzeuden, bata kalumnia delituagatik eta bestea irain delituagatik. Galdetu nion ea nork jarri zituen demanda horiek, eta berak erantzun zidan, oso zakar, nik jakin beharko nukeela nor kalumniatu eta iraindu dudana. Esan nion eskubidea neukala izenak jakiteko eta, mesedez, emateko. Esan zidan CTIko bi agente zirela, eta eskatu zidan baieztatzeke ea joango nintzen entzunaldira (hurrengo hiru egunetan zen egitekoa). Erantzun nion lehenago nire abokatuekin hitz egin behar nuela. Fiskalak esan zidan ez kezkatzeke; kereila bidez salatutako delitua zela, eta zenbat eta azkarrago bideratu, hobe izango zela. Orduan, harremanetan jarri nintzen NBEko Giza Eskubideen taldearekin, Lanuzte Zibikoko Giza Eskubideen Behatzailearekin eta PCNrekin. Beraiek gomendatu zidaten ez joateko entzunaldira harik eta eskaera-eskubidearen bidez egoera benetakoa zela egiaztatu arte, eta demandatzaileak zeintzuk ziren eta nire aurka zer frogak zituzten ikusi arte.

Ekainaren 25ean, erantzuna jaso genuen: “*Jakinarazten dizut (...) jaunek aipatutako salaketa aurkeztu zutela, CTIko ikertzaileak zirela adierazita; hala ere, karpinari ez zaio erantsi hori egiaztatzen duen agiririk*”. Telefonoz deitu zidan fiskal beraren sinadura zeraman dokumentuak, bai eta fiskaltzaren idazpurua ere. Nire abokaturi oso arraroa iruditu zitzaion erantzun hori. Lehenik eta behin, telefonoz izandako elkarrizketan fiskalak esan zidalako agenteak CTIkoak zirela. Bigarrenik, berak badaukalako aukera egiaztatzeke pertsona horiek funtzionarioak diren ala ez. Eta hirugarrenik, uste dugulako filtratu egin zirela hilabete batzuk lehenago fiskaltzari aurkeztutako frogak; segika ibili zitzaizkidan 11 gizonen eta emakume baten argazkiak, hain zuzen. Nik ez dut inoren izenik eman inongo hedabidetan edo eremu publikotan, ez dakidalako nortzuk diren; eta ez ditut frogak inon argitaratu.

Egoera aztertu ondoren, ondorioztatu dugu bi pertsona horiek sarbidea izan zutela frogetara, eta aurrea hartu eta auzitara eraman nindutela. Izan ere, zelatatze horiek legez kontrakoak dira, ez baitira egin ikerketa ofizial baten barruan. Beraz, indar handiagoa hartu zuen Giza Eskubideen Behatzailetzan esku artean geneukan hipotesiak; hau da, CTIko agenteek egin zituztela zelatatzeak (beraien lan egiteko

---

26 Ikerketa Talde Teknikoa (Kolonbiako Fiskaltza Nagusia)

moduagatik antzeman zitekeen), baina eragile pribatu batentzat. Eskari-eskubideari erantzun ondoren, ez dugu berriz jaso entzunaldia egiteko deirik.

Demanda arraro horren ondoren, gertatutakoa jendaurrean jartzeko gomendatu zidaten nire kasua daramaten nazioarteko babes-erakundeek. PCN harremanetan jarri zen El Espectador egunkariarekin; kasua azaldu genien, eta gaiari buruzko artikulu luze bat idaztea erabaki zuten<sup>27</sup>. Gainera, egunkari horretako kazetari bat ohartu zen fiskalak eskaera-eskubidean aipatutako bi izenetako bat ez dela ageri Estatuko funtzionarioen datu-basean. Hain zuzen ere, zedula-zenbakia ez dator bat emandako izenarekin. Beste pertsona, aldiz, Caliko CTIko funtzionario aktiboa da.

Uztailaren 5ean, ostirala, 17: 30ean, alabarekin irten nintzen Cali hirirantz. Asteburuetan bidaiatu ohi dugu. Nire etxea giltzaz itxita utzi nuen, beti bezala, eta babes-ibilgailuan abiatu ginen. Uztailaren 7an, igandea, 09:00ak inguruan, alabak deitu zidan. Aitarekin zegoen une horretan (Buenaventurako Herriaren Defentsa Bulegoko funtzionarioa da). Alabak esan zidanez, etxera joan ziren arroparen bat hartzera, eta iristean atea zabalik zegoela ikusi zuten, eta morroilloa kenduta. Hara zer esan zidan: *“Aita etxera sartu zen ikusteko ea barruan norbait zegoen; izan ere, oihuka hasi nintzen atea irekita topatu nuenean, banekielako etxetik ateratzean ondo itxi genuela. Gora igo eta dena arakatu zuen aitak, baina ez zuen ezer arrarorik aurkitu. Irten ginenean, aitak morroilloz itxi zuen berriz atea”*. Ez nion garrantzi handirik eman; pentsatu nuen ahaztu egingo zitzaigula atea morroilloz ixtea. Uztailaren 8an Buenaventurara itzuli nintzenez, alabak zehatz-mehatz azaldu zidan nola aurkitu zuen atea: erabat irekita, eta morroilloa kenduta. PCNko lankideekin harremanetan jarri eta segurtasun-arazo horren berri eman nien. WhatsAppeko ahots-mezu bat bidali nien, halaber, Herriaren Defendatzaileari, NBEko Giza Eskubideen taldeari eta Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programari.

Hainbat proba egin genituen eskoltekin eta nire erakundeko bi kideekin, eta argi geratu zen ezinezkoa zela gu etxetik irtetea eta ez ohartzera atea zabalik utzi genuela. Egoera aztertuta, ondorioztatu genuen larunbatean sartu zirela gure etxera, Calira joan eta biharamunean. Agintari eskudunei ez genien gertatutakoaren berri eman, ez nintzelako fidatzen poliziarekin eta tokiko fiskaltzarekin; hain zuzen ere, biak nire errutinak legez kanpo zelatatzen ibili ziren, eta kalumnia eta irain delituagatik adiskidetze-entzunaldira deitu zidaten.

Horrenbestez, Estatuko fiskaltzako ikertzaile bati deitzea erabaki nuen. Ikertzaileak erantzun zidan nire karpeta Bugako fiskaltzari (Caucako harana) eman ziola, eta han jakinarazi behar nituela azken gertakari horiek. Galdetu nion ea zergatik itzuli zuten kasua eskualde-mailara, kontuan izanda, Giza Eskubideen Mahaiarekin adostutakoaren arabera, horrelako ikerketak nazio-mailan egin eta koordinatu behar direla (eskualde- eta toki-mailan ez dago bermerik). Azkenean, Nazioko Fiskaltza Nagusiak berretsi zidan nire ikerketa maila zentralerako ikerketa zela.

Egun batzuk geroago, uztailaren 14an, Néstor Urbano Tenorio parkean nengoela alabarekin eta hiru lagunekin, Buenaventurako antolaketa-prozesuetan parte hartzen duen ezagun batek deitu zidan. Esan zidan Punta del Este auzoan norbaitek nire argazkia ikusi zuela kalean, eta entzun zuela norbait *“dirua ordaintzeko prest zegoela bera akabatzearen truke”*. Informazio hori eman zionak gaineratu zuenez, *“oso ondo itxi behar nituen etxeko leihoak eta ateak, eta ez zen beharrezkoa ni Buenaventuratik joatea; hil nahi ninduten fiskaltzari frogara sendo batzuk eman nizkiolako, eta horren ondorioz konprometitu egin nituelako Buenaventuran diru eta botere asko duten zenbait pertsona”*. Orduan gogora etorri zitzaidan uztailaren 5ean gertatutakoa (etxeko atearena), eta oraindik gehiago larritu nintzen.

Gertakari horien ostean, denbora labur batez Buenaventuratik irteteko gomendatu zidaten nire erakundeak eta Herriaren Defendatzaileak. Gau hartan, hiriguneko Torre Mar hotelean eman zidaten ostatu. Hurrengo egunean, 2019ko uztailaren 16an, 06:30ean, leiho tindatuak zituen ibilgailu beltz bat ikusi nuen hoteleko balkoitik. Kamioneta bi ordu inguru egon zen han geldi. Inor ez zen irten edo sartu; beraz, eskoltei jakinarazi nien ibilgailu susmagarri bat zegoela, eta eskatu nien ez etortzeko nire bila hotel

27 <https://www.elespectador.com/colombia2020/territorio/agentes-del-cti-asedian-una-lideresa-social-de-buenaventura-articulo-868728>

<https://www.bluradio.com/nacion/me-amenazan-por-mis-denuncias-la-situacion-portuaria-lideresa-de-buenaventura-pcfo-219389-je4370686>

<https://www.youtube.com/watch?v=g4Xx10nRmYU>

aurrera, baizik eta aurreko etxadira. Telefonoa eskegi bezain laster, kamioneta leku horretara abiatu zen. Berriz deitu nien eskoltei, eta kamioneta desagertzen ikusi nuen. Herriaren Defentsa Bulegora deitzea erabaki nuen, hoteletik irteten lagun ziezadaten. Harrezkero, ez naiz itzuli Buenaventurara. Salbuespen bat egin nuen 2019ko abuztuaren 25ean; La Paz auzoan jarduera komunitario batean parte hartu nuen, PBlren<sup>28</sup> laguntzarekin.

## Eraginak

Gu ziti honek izugarriko eragina izan du nire bizitzan. Emozioak erabat asaldatuta dauzkat. Presio handia sentitzen da norbait segika duzula jakitean. Galdera asko etortzen zaizkizu burura: *Zertarako? Zer nahi dute?* Jazarpenek, funtsean, 2 eraso ekar ditzakete: faltsu positibo judiziala edo erailketa. Beraz, beti duzu ezinegon hori: *gaur izango da hilko nauten eguna?*; *gaur harrapatuko naute?* Presio handiegia da, eta, jakina, horrek indarra eta lasaitasuna kentzen dizkit. Gainera, denbora asko galtzen dut: gauzei aurrea hartu behar diet, nire burua zaindu behar dut, eskari-eskubideei erantzun behar diet, kasuak idatziz jaso behar ditut. Denbora hori beste gauza batzuetarako erabiltzen nuen, niretzat; ikasketekin, prestakuntzarekin eta antolaketarekin lotutako kontuetarako. Orain ia ez daukat denborarik ezertarako. Eguneko 24 orduak eman behar ditut nire burua zaintzen. Jada ez dut bizitza sozialik. Nire eskoltak behar-beharrezkoak ditut. Zerbaitez oharitzen banaiz, jakinaren gainean jartzen ditut eta haiek berretsi egiten dute; baina beraiek ez dute ekimen propiorik, ez dute ezer idatziz jasotzen. Batzuetan, galdetu eta hau erantzuten didate: "*Begira, Danelly andrea; hau ikusi dugu*". Argazkiei edo erregistroei buruz galdetzen diet, eta ez dituzte egiten, nik eskatzen ez baditut behintzat; beraz, niri dagokit nire burua zaintzea.

Gainera, alaba zelatatzen ibili dira. Horrek izugarri kezkatzen nau. Baztertu egin dut positibo faltsu judizialaren hipotesia; izan ere, hala balitz, nire atzetik bakarrik joango lirateke; baina, zergatik alabaren atzetik? Ume bat besterik ez da; bera ez dute sartuko gai judizialean. Orduan, litekeena da alaba edo ni hiltzeko asmoa izatea. Alaba hiltzea ni presionatzeko mekanismo bat izango litzateke. Horrek izugarri nekatzen nau emozionaliki, eta sekulako ahalegina egin behar dut egonkor jarraitzeko; azken batean, jazarpenak tortura psikologikoko estrategia bat dira; emozionaliki ezegonkortzeko eta beldurra sartzeko presio-estrategia bat. Gogor borrokatu behar naiz burua ez galtzeko, eta jakiteko zer den errealitatea eta zer norberaren ustez gertatu daitekeena.

Indarkeria politikoari buruz dudak ikuskerari eta esperientziari esker, egonkor mantentzen naiz. Baina oso nekagarria da, jada ezin baitut bizimodu normalik eraman; ez daukat bizitza sozialik, ez naiz irteten. Buenaventuran, laneko kontuetarako baino ez nintzen joaten bulegora; bidaiatzen nuenean ere, lanegatik egiten nuen. Nire etxea kartzela bat zen. Ez nintzen leihotara irteten, ez nintzen balkoira ateratzen, ez nintzen terrazara joaten. Nire 4 hormen artean sartuta nengoen beti, eta hori oso gogorra da, ezin duzulako inorekin harremanik izan.

Gu oso lagunkoiak gara. Ni ez naiz festazalea edo berandu oheratzen direnetakoa; baina banituen nire espazio sozialak, eta gaur ezin ditut partekatu. Gaur egun ez dut harremanik ia inorekin. Ezin naiz nire lagunekin irten, ezin naiz beraiekin ibili, ezin dut beraiekin hitz egin; ezin dut denborarik pasa alabarekin eta senideekin. Denbora asko ematen dut pentsatzen nola aurre egin etor daitekeenari, edo gerta litekeen horretarako espirituali prestatzen. Heriotza bada, lasai egon behar dut inguruan dudak jendearekin, egiten ditudan gauzekin, pentsatzen dudanarekin. Oso nekagarria eta mingarria da, eta ahituta nago.

Ama ezkongabea naiz; neuk hezi nuen nire alaba. Hala ere, 2019ko uztailean alabaren aitarekin hitz egin nuen eta adostu genuen berarekin biziko zela. Buenaventuratik kanpo egon nintzen hilabete pasatxo, eta itzultzean, nire antolaketa-lanari ekin nion berriz, horixe baita nire bizi-erabakia.

Nire haurtzaroko Buenaventuratik alde egin behar izan dut, eta hori oso mingarria da. Min ematen du hiria usaindu ezinak, haren koloreak ikusi ezinak, hiria dastatu ezinak; itsasoko haize onberak aldizka freskatzen duen eguneroko beroaz gozatu ezinak. Nik maite dut Buenaventura, eta haren hutsune izugarria daukat. Inoiz ez zait burutik pasatu Buenaventura gabe bizitzea, eta gogo ikaragarria daukat hara itzultzeko; dela euri gisa, dela itsaso gisa, baina itzultzeko.

---

28 Peace Brigades International

Zorionez, ezin izan naute hil. Jainkoak gobernatzen du nire bizitza, bere maitasunaz babesten nau, eta nire espiritua gidatzen du. Berak hala erabakitzen duenean irtingo naiz egoera honetatik. Bien bitartean, tinko eutsiko diot justiziarako grina biziari; beldurrak baino indar handiagoa baitu, zorionez.

## Babes-estrategiak

Nire bizitzako 15 urte eman ditut biktimei laguntzen, eta haietako batzuk arrisku handiko egoeratan zeuden. Bada, esperientzia horrek erakutsi dit zeinen garrantzitsua den nor bere emozioak zaintzea. Ahalegin izugarria egiten ari naiz alderdi emozionala eta espirituala elikatzeko. Horixe da nire asmoa, nire sostengu nagusia.

Hainbat terapiatara jo dut oreka mantendu ahal izateko: terapia alternatiboak, hidroterapiak, terapia neurala...; bai eta kolonterapiara ere, erraietako sentimenduak ditudalako. Gertatzen zaizkidan gauza guztiek eragin konplexua dute nigan: koloneko hanturak, bizkarreko mina. Osasun-azterketa asko egiten ditut; serumak eta bitaminak hartzen ditut. Asko zaintzen ditut gorputza eta arima, nor bere burua zaintzeko taktika gisa.

Neurri fisikoei dagokienez, gertakariak idatziz jasotzen jarraitzen dut, gertatzen ari dena dokumentatzen. Gehienetan, hemen, Kolonbian, fiskaltzak esan ohi du buruzagi sozialok gertakariak puzten ditugula; salaketak egiten ditugula, baina inoiz ez daukagula frogarik. Baina nik badauzkat frogak. Hau autodefentsarako estrategia bat dela iruditzen zait. Arriskuak gutxitzen ez baditu, handitu ere ez ditu egiten. Gutxitu egin beharko lituzke; izan ere, froga horiek atzean dauden pertsonak geldiarazteko mekanismo bihur litezke. Kolonbian edozer gauza gerta daiteke, baina uste dut hori lagungarri izango zaidala.

Gainera, kontu handiz ibiltzen naiz eguneroko bizitzan. Protokoloak ditut: ez naiz gauez ateratzen, ezta bidaiatzen ere; leku irekiak saihesten ditut, eta etxeko segurtasuna indartu dut. Eskoltak ditut, baina neure neurriak hartzen ditut: etxetik irten baino lehen, kalea aztertzen dut leku garai batetik, ikuspegi osoa begien aurrean izateko. Horrela jakin dezaket zer *carro* dauden inguruetan, zer ez dagoen, jaitsi naitekeen ala ez. Adi-adi begiratzen diet ibilgailu guztiei. Kamerak ere jarri ditut etxe barruan.

Buenaventuratik irtetea erabaki dut, une honetan ordena publikoa oso asaldatuta baitago auzoetan. 2000., 2002., 2004. eta 2007. urteetan bezalaxe. Eta egoera are okerragoa da orain, talde paramilitarrak ez ezik gerrilla-dinamikak ere badirelako. ELN<sup>29</sup> eta FARC<sup>30</sup> borrokan ari dira zenbait auzoren lurralde-kontrola berenganatzeko. Gainera, Estatuaren beso armatua dago, paramilitarrekin batera diharduena. Egoera oso tirabiratsua da. Eta asko haurrak dira, 12 eta 17 urte bitarteko gaztetxoak. Ez dira arriskuez ohartzen, eta ez dute beldurrik.

## Aldi baterako birkokapena: Euskadiko Babes Programa

Maila pertsonalean, Kolonbian bizitzen ari nintzen tentsio-testuingurutik aldentzeko balio izan zidan. Ez bakarrik jazarpenetik ihes egiteko; duela 3 urte baino gehiagotik ditudan babes-neurrietatik ihes egiteko ere bai. Izan ere, oso zaila da bizimodu hori eramatea; ohitu egin behar duzu beti norbait aldamenean izatera, eta besteen zaintzaren mende egotera. Hara joateak hori ulertarazi zidan. Ni ez nintzen jada bakarrik ateratzen kalera; beti nuen norbait atzean, nire bizkarra zaintzen. Horregatik, programan parte hartu ahal izateak nolabaiteko atsedena eman zidan. Baina ezinezkoa da errealitatea erabat ahaztea. Beti duzu itzultzeko gogoia, zerbait egiteko irrika. Hala ere, beste lurralde batean egote hutsak nolabaiteko lasaitasun emozionala ematen dizu; atsedena hartzeko aukera ematen dizu. Indarrak berreskuratzen laguntzen dizu. Guztiz akituta atera nintzen Kolonbiatik, baina indarberrituta itzuli nintzen. Zentzu horretan, dezente laguntzen du.

Familia ere lasaitu egiten da; beraiek dira egiten dudana egiteari utz diezadan nahi duten lehenak. Ez enpresaburuak, ez Estatua. Familia. Ni kanpoan egoteak gehiago lasaitzen ditu beraiek ni neu baino. Nik uste dut haiek direla onuradun handienak.

29 Nazio Askapenerako Armada

30 Indar Armatu Iraultzaile Kolonbiarrak

Erakundeari dagokionez, hutsune bat sortu da nik han betetzen dudan eginkizunaren ikuspegitik; dena den, erakundea gai izan da mekanismo berriak sortzeko, eta gabezia horri aurre egin dio. Itzuli nintzenean, lankideak ari ziren nire zereginetako batzuk egiten, eta hori oso lagungarria da erakundearentzat. Izan ere, batzuetan, norbera oso grinatsua bada, gauza gehiegi hartzen ditu bere gain eta ahitu egiten da. Lana asko indartu zen, batez ere hiri-inguruetan. Bi lankide arduratu ziren hango zereginenez, eta horrek erakusten dizu lana ez dela ahulduko arrazoiren batengatik alde egin behar baduzu ere. Beti egongo da norbait arriskuak bere gain hartzeko eta ekarpenak egiteko prest. Egonaldiak prozesua suspertu zuen. Nire ustez, egonaldia eta harrera funtsezkoak izan dira. Beti izango da aukera bat.

## Nire gogoeta giza eskubideen defentsaren inguruan

Bizitzen ditugun gauzak beste eragingarri bat baino ez dira. Gertatutakoa gertatu ere (mehatxuak, jazarpenak, sarraskiak, haurrak errekrutatzea, tortura-etxeak, ankerkeria...), ezerk ez gaitu geldituko gure eskubideak aldarrikatzeko eta lortzeko borrokan. Aitzitik, pizgarri bihurtu behar dute gertaera horiek, motibazio bat gehiago. Azken batean, bizitza da arriskuan dagoena; guztion bizitza. Nire ustez, amore ematea akats handi bat da, akats konponezin bat. Izan ere, jarrera irmoa erakutsi behar dugu bizitzaren defentsan, gaizkiaren aurrean pasiboki jokatu beharrean. Bizitza hobe baten alde borrokatzen bagara, ziur nago gure espiritua lasai ibiliko dela gu jada ez gaudenean, ez zuelako ezer utzi amaitu gabe.

Nik badakit Jainkoak dohain bat eman zidala. Hitzaren boterea eman zidan, hitzekin mobilizatzeko ahalmena; indar jainkotiar hori daukat barruan, eta oso ondo dakit nola erabili. Botere hori erabiltzen ez badut, jendearen zerbitzura jartzen ez badut, min izugarri hori eragiten ari direnen parean jarriko naiz; izan ere, nire isiltasunak, pasibotasunak eta axolagabekeriak mina areagotu besterik ez du egingo. Nahiago dut eskubideen defentsan eta aldarrikapenean jardun, funtsezkoa baita gizarte-eraldaketetan aktiboki eta erabakitasunez parte hartzea. Azken finean, pertsona batzuk beste batzuen borrokari esker daude bizirik. Ni nire arbasoei esker nago hemen, beraiek ez zutelako amore eman; beren askatasunaren alde borrokatu ziren, sistema ekonomiko esklabostatik askatu ziren, *palenke* izeneko espazio libertarioak sortu zituzten, eta guretzat nahi zuten bizimoduaren haziak landatu zituzten han. Baldintzarik gabe, aldeko legerik gabe. Beti galdetzen diot neure buruari: beraiek lortu bazuten, gai izan baziren sistema bat suntsitzeko eta kate astun haiek apurtzeko, zergatik bihurtu behar dut neure burua esklabo? Denok amore ematen badugu, denok egongo ginatke zapalduta. Parte hartzea nahitaezkoa da, eta nik ez diot horri uko egingo. Ez dut uko egiteko aukerarik, ez eta asmorik ere. Bizitza defendatzeko prest egon behar dut beti, hori baikara funtsean; bizidunak.

Askotan pentsatzen dugu giza eskubideen defentsa soilik gure ardura dela; alegia, lider sozialena, lider komunitarioena, hara eta hona hitzaldiak emanez gabiltzan gizon eta emakumeena. Aurten, ordea, konturatu naiz beste pertsona batzuek ere oso lan garrantzitsua egiten dutela beste agertoki batzuetatik; nahiz eta lider sozialak ez izan, guk egiten dugun lana indartzen dute, modu batera edo bestera. Eta hori pizgarria da. Adibidez, ezagutu ditut beren lanaren bidez errealtatea erakusten ari diren kazetariak. Min ematen dielako, agerian jarri nahi dute gertatzen ari den guztia. Indarkeria-egoera bortitzari buruz idazten dute etsai-giro beldurgarri batean, eta bizitza arriskuan jartzen dute hori egiten duten bakoitzean. Erabakita daukate beren albisteak eta artikuluak argitaratzen jarraitzea, eta hori egiteagatik aurrez aurre dituzte enpresak, enpresaburuak, talde armatuak eta politikariak. Gaur egun, badakit mota askotako pertsonak defendatzen dituztela giza eskubideak.

Bizi-esperientzia hori erakundeko kideekin partekatzen dut batez ere, eta horrek asko laguntzen dit: elkartzea eta partekatzea beti dira aberasgarriak. Eta hemen, erakundean, oso erraza da elkar ulertzea, bereziki ongien konpontzen garen pertsonekin. Izan ere, denok partekatzen dugu min berbera. Baina amets bera ere bai. Nik amesten dudana Leylak amesten du. Buenaventuran gertatzen ari denak min ematen dit, eta berari ere bai. Beraz, berak ongi daki zer bizitzen ari naizen. Ez da dolu pertsonala, kolektiboa baizik. Niri egokitu zitzaidan sufritzea, baina ez gaude doluan Danellyri gertatu zaiionagatik bakarrik; Kolonbiako ehunka emakume liderrek pairatu dute gauza bera. Ni ez naiz super defendatzaile bat; etnia zapaldu bateko kidea naiz, eta etnia horren barruan, zapaldua izateko prest ez dagoen pertsonetako bat. Une honetan, ni ez nago gaizki soilik jazartzen ari zaizkidalako. Nik alde egin dezaket hemendik, atzerrira joan naiteke eta orduan beharbada ez naute jazarriko; baina jendeak itxaropenik



gabeko egoera horretan bizitzen jarraituko du. Eta horrek min emango dit, nahiz eta erbestean egon. Ni ez naiz bizi laguntzen ditudan auzoetan; izan nezake aukera errealitate horretatik aldentzeko, baina ezingo nuke hori egin, zerbitzatzeko bizitzen ikasi nuelako, amak erakutsi bezala.

Erakunde guztiek helburu desberdinak ditugu. Hemen badira haurrekin, emakumeekin edo lurraldearen defentsan lan egiten duten erakundeak. Eta bakoitzak bere borroka egin behar du. Baina, azken batean, guztiek dute xede bera: Zuzenbideko Estatu Soziala gauzatzea. Guk hau esan ohi dugu: “*ez badugu eskatzen, Estatuak ez du gauzatuko*”. Beraz, guk ekarpen bat egiten diogu Zuzenbideko Estatu Sozialari, Konstituzioan hitzemandakoa egia bihur dadin. Erdizka bada ere, gauzatze horrek zenbait gauza bermatuko ditu, eta komunitate beltzari ez ezik, Kolonbiako herri guztiari ere on egingo dio. Gizarte osoari egingo diote mesede ahots horrek, borroka horrek, protesta horrek eta guk jaso ditugun kolpeek. Azkenean, jendea fruituak jasotzen ari da; eta ikusten ari da Estatu berme jakin batzuk ematen hasi dela, paperean agindu zigutena oinarri hartuta. Estatuari agindutakoa betetzeko eskatzen diogu, borrokaren eta konbergentzia kolektiboaren bidez.

## Emakume beltzen borrokak

Emakumeok leku guztietan islatzen ditugu gure emozioak. Gizonek ere badituzte emozioak, baina ez dituzte erakusten; erreprimitu egiten dituzte, edo ez dituzte naturaltasunez adierazten. Beraiek edan egiten dute, eta guk negar egiten dugu. Negarrak barrua garbitzen du, eta likoreak mozkortu. Emakumeak sentiberak garenez, grina handiagoz, irmotasun handiagoz eta koherentzia handiagoz aldarrikatzen ditugu gure eskubideak. Gizon beltzek beren lehentasunak dituzte, eta pribilegioetan oinarritzen dira lehentasun horiek; izan duten edo ez daukaten horretan. Lurra defendatzea izan daiteke beraien lehentasuna, alegia, gauza fisiko bat; baina gu ez gara borrokatzen ari lur fisikoagatik, baizik eta zerbait edukitzeagatik. Izan ere, dena ukatu digute. Gu gizonekin batera borrokatzen gara helburu hori lortzeko, baina borrokatu ostean ez gaituzte kontuan hartzen. Beraz, berriz borrokatu behar gara, geurea ez zen lur horretan emakume gisa bizi ahal izateko, emakume gisa geure burua adierazteko, gure herrian bertan leku duin bat izateko. Gizonei borroka hori ez zaie interesatzen; beldurra ematen die, kezka eragiten die, eta hor geratzen da agerian gizonezko lider afrokolonbiarren inkoherentzia. Emakumeok onak eta erabilgarriak gara, gizonekin batera eskubide kolektiboaren defentsan borrokatzen garen bitartean; baina emakume gisa ditugun eskubideak aldarrikatzen hasten bagara, gutxietsi egiten gaituzte, baztertu egiten gaituzte eta estigmatizatu egiten gaituzte. Kostatu egiten zaie ulertzea zapalkuntza bikoitza jasaten dugula, beraiei mesede egiten baitie tokiko sistema patriarkalean emakume izateagatik jasaten dugun diskriminazioak.

Hitzaren dohaina dugun emakumeok oso ondo uztartzen ditugu elokuentzia, grina eta sentikortasuna. Gizonei, berriz, enbarazu egiten die gaitasun horrek, ahuleziatzen hartzen dutelako. Emakumeon diskurtsoa gizonena baino irmoagoa izan ohi da, gizonak ez baitaude prest sentikortasun eta grina hori azaleratzeko. Horrek asko laguntzen digu jendea mugiarazten, komunitatea hunkitzen eta gure borrokarako bihotz gehiago konkistatzen. Nire ustez, emakumeek irudikatzen dute, neurri handi batean, PCNk Buenaventuran duen indarra. Leylak, adibidez. Gozamina da Leylaren hitzaldiak entzutea; oso trebea da jendea mobilizatzen. Berarekin ikasi nuen hitza tresna mobilizatzailea dela; berak benetan sentitzen du esaten duen guztia, eta horrek diskurtsoa kolektibizatzen du. Emakume beltzok hitz egiten dugunean, gorputz osoarekin hitz egiten dugu. Bihotzarekin, buruarekin, begiekin, eskuarekin. Negar egin behar bada, negar egiten dugu. Hori ez da ahultasunaren seinale; aitzitik, ahalmen zoragarria da. Makina bat aldiz egin dugu negar Buenaventuragatik. Prest gaude Buenaventuragatik negar egiteko, Buenaventura maite dugula esateko, Buenaventurari diogun maitasuna adierazteko, eta ez dugu eragozpenik hori egiteko. Egoera zailetan, denok batera negar egiteko elkartzten gara. Terapia izugarri polita da; ni oso negartia naiz, baina ezagutzen ez nauen jendeak niri buruzko ikuspegi partziala du; borrokazalea naizela esaten dute. Ni ez naiz borrokatzen, eskubideak defendatzen ditut. Batzuek uste dute haserrekorra naizela, ez dakidala janaririk prestatzen, ez dudala ez besarkadarik ez musurik ematen. Baina, egiaz, ezta baino gozoagoa naiz, Oshun-<sup>31</sup> esker. Duela gutxi, Leylari eta biori galdetu ziguten ea musurik ematen genien geure bikotekideei. Beste planeta batekoak bagina bezala begiratzen digute. Horrek barregura handia ematen dit; heteronormatibotasunak harrapatuta dauzka gure gizonezko

31 Jatorri afrikarreko jainkosa, ur gezak gobernatzen dituena. Gozotasunaren, maitasunaren eta feminitatearen jainkosa da.

lankideak. Askorentzat ez gara emakumeak, eginkizun politiko bat betetzen dugulako eta gizarteak gizona bakarrik utzi izan dizkien gauzak egiten ditugulako: politikoki pentsatu, eztabaidatu, aztertu eta, batez ere, irmotasunez hitz egin. Ez diogu inori gezurrik esaten, eta bakoitzari dagokiona ematen diogu errespetuz. Egin behar denean, egin beharra dago; hori da kontua. Eta gizonak ez dute nahikoa egiten; diplomaziaren barruan, zurrunezi jokatzeko dute. Guk badakigu noraino iristen den diplomazia, eta noiz dagoen kolokan duintasuna. Kontua ez da inor iraintzea. Hitzarekin oso koherenteak izan behar dugu, oso adierazkorrak, hitza borrokarako tresna baita. Jendea mintzen bada, beraientzat kalte, amorratu egiten direlako eta eztabaidaren haria galtzen dutelako. Azken batean, gure emozionaltasuna erabat politikoa da.

Beraz, emakumeak eta gizonak guztiz desberdinak gara. Ikusi dugunaren arabera, PCNren barruan, emakumeek jasaten dituzte arriskurik handienak; hitzaren eta konbentzimenduaren dohaina duten emakumeek: Frantziak, Sarak, Tuliak, Leylak, Luz Maryk, Pepak eta nik. Eta neure buruari galdetzen diot: *Zer hautematen dute gizonak? Zer nahi diote aurre egin?* Diskurtso horren bidez adierazten den ideologiari. *Nork igortzen du diskurtso hori?* Gorputz osoarekin, begiekin, eskuarekin, ahoarekin, guztiarekin hitz egiten duen emakume batek. Eta horri aurre egin nahi diote. Eta horri aurre egiten zaionean, guri eragiten digu funtsean, eragile garelako, zerbitzatzeko bizi garelako. Zerbitzu komunitarioa bizimodu bat da, komunitatekoak ez diren feministek pentsatzen dutenaz bestelakoa.

Arriskuak bezala, minak ere handiagoak dira guretzat. Gizonak ez dute ulertzen guk zer irudikatzen dugun. Batzuetan, oztopo erraldoi bat dela pentsatzen dute. Badakite lan egiteko eta mobilizatzeko ahalmena daukagula, baina erronkak enbarazu egiten die.

## Erreparazio kolektiboa

Nik ez ditut bereizten gizabanakoa eta taldea. Ahalegin handia egiten dugu jendeak uler dezan lan hau egiten dugunok ez daukagula arazo pertsonalik inorekin. Nik, Danellyk, ez dut inongo arazo pertsonalik talde armatuekin, ez eta enpresaburuarekin ere. Nik defendatzen ditudan lurraldeak ez dira nireak; etxe propiorik ere ez daukat, lursail batean alokairuan bizi bainaiz. Lurralde-eskubide kolektiboak defendatzen ditugu, guretzat aldarrikatzen ditugu. Eskubide kolektiboak itzultzen direnean, banakako erreparazioa ere gertatuko da. Alegia, kontua ez da Danellyren lurrerako eskubidea, edo Danellyren etxea, baizik eta lurra herriari itzultzea; portua handitzeko estrategiaren barruan Buenaventurako komunitateari kentzen ari zaizkion lurra itzultzea, hain zuzen. Nik erreparazioa eta konpentsazioa jasoko dut, baldin eta eskubide kolektibo horiek Buenaventurako komunitate beltzari osorik itzultzen bazaizkio; alegia, bai itsasoari irabazitako eremuetan eta bai landa-eremuetan bizi diren haurrei, gazteei eta helduei. Lurraldearen bidezko banaketa egingo balitz, zati bat portuarentzat eta beste bat komunitatearentzat gordez, lasai biziko ginatke, betidanik hor egon den komunitatean. Erreparazio kolektiboko neurri hori hartuko balitz, erreparatutzat joko nuke neure burua, nahiz eta etxe propiorik ez izan.

Nik ez dut nahi banakako neurrik, ezta eskoltarik ere; nahi dudana da bakean uztea Buenaventurako lurraldea, hango jendea bere lurretan bizi ahal izateko, beti egin duen bezala. Nahi dudana da auzoak bisitatu ahal izatea, egungo muga ikusezinak zeharkatu ahal izatea, orain bainatu ezin naizen ur horietan bainatu ahal izatea, lagunak ikustera joan ahal izatea. Ez dut nahi aintzatespen pertsonalik. Ez ditut behar. Herritar naizen aldetik, nire eginbeharra da justiziaren alde borrokatzea, eta gizaki naizen aldetik, gogotsu borrokatzen naiz helburu hori lortzeko. Gainera, zentzugabea iruditzen zait inor nire lana aintzatesten ibiltzea. Egiten dudana nire betebeharrak soziala edo zibikoa besterik ez da, komunitateko kide naizelako. Edonork egin beharko luke gauza bera. Erreklamatzeko ari garena legezkotasunaren barruan dago; Kolonbiako legeria betetzen du. Eskatzen duguna gauzatzen bada, gu izugarri poztuko gara. Eskubide kolektiboak itzuliz gero, nire eskubide indibidualak ere itzuliko lizkidate.

Eskubidea dugu garen hori izateko: hemen bizitzeko, hitz egiten dugun bezala hitz egiteko, jaten duguna jateko, dantzatzen duguna dantzatzeko, jantzen garen bezala jantzeko, maitemintzen garen bezala maitemintzeko. Eskubidea dugu gure nortasunari eusteko, eta nortasun horrek ez du zertan inor iraindu: ez etortzen diren turistak, ez enpresaburuak, ez beste inor. Eskubidea dugu gure lurraldeari eusteko, gure etxeak edukitzeko, tradizionalki egin dugun bezala. Eskatzen duguna da errespetatu dituzten gure etxebizitza tradizionalak, eta ez dituzten lotu pobreziarekin eta eskaletasunarekin. Egurra da inguruan

daukagun baliabide naturala, eta guk erabili egiten dugu. Egurrezko etxebizitza freskoagoa da, eta gure aitona-amonengandik jaso dugu. Inork ez du zertan kultura-ohitura hori ezabatu.

Eskubide osoa dugu parte hartzeko eta gure artean antolatzeko; etorkizunera begira Buenaventurak nolakoa izan behar duen pentsatzeko, gure mundu-ikuskeratik abiatuta. Inor ezin zaigu kanpotik etorri garapen-plan bat indarrez ezartzera. Buenaventurako herriak ez badu nahi bere inguruan 15 portu izaterik, eta moila handi bat eraikitzeko zona franko bat sortzerik, zilegitasun osoa dauka ezetz esateko, bere etorkizuna libreki erabakitzeko eta zer egin behar den eztabaidatzeko. Gu gara Buenaventuraren jabeak, guk geuk eraiki baitugu gure eskuekin. Eta, azkenik, autonomia-eskubidea dugu; hau da, eskubidea daukagu erabakitzeko non eta nola bizi nahi dugun. Horiek dira eskubide kolektiboak.

## Nazioarteko komunitatearen zeregina

Testuinguru horretan, nazioarteko laguntzaren zeregina da estatuko dinamiken nahiz dinamika paraestatalen errepreoiari eustea. Nazioarteko komunitateak, berez, ezin ditu eskubideak bermatu; Estatuak da eskubideen bermatzailea, eta estatuak independenteak dira. Gainera, ezin du ezer egin lurraldeentzat ezarrita dauden politika ekonomikoak garatu ez daitezten. Hala ere, nazioarteko komunitateak lagundu dezake eskubideak babesteko mekanismoak sortzen, eta exijitu dezake eskubideak bete daitezela. Behaketak, laguntzak eta eskaerak erabiltzen ditu horretarako; ekarpen ekonomikoak ere murriztu ditzake, Estatuak ez baditu baldintza jakin batzuk betetzen. Azken batean, nazioarteko komunitateak erregulazio-mekanismoak sortzen ditu. Eta mekanismo horiek, nola edo hala, babes-estrategia bihurtzen dira guretzat. Nazioarteko laguntzak, neurri batean, aurre egin diezaioke Estatuari, zeinak su eta gar finkatu nahi baitu bere dinamika ekonomikoa. Horixe gertatu zen, adibidez, Puertos de Barcelona enpresarekin. Kataluniako politikariekin izandako elkarrizketen bidez, enpresa presionatu genuen Buenaventuran inbertitzeari uko egin ziezaion. Hain zuzen ere, politikariei ikusarazi genien Buenaventurako familiak beren lurretatik botatzen ari zirela, beren etxebizitzak suntsitzen ari zirela, eta jendeak ezin zuela jada arrantzatik bizimodua atera. Presioaren ondorioz, kapital hori beste nonbaiten inbertitu zen, eta, neurri batean, gertatutakoa aurrekari bihurtu zen: nik zuzen inbertituko dut, baina horren truke gutxieneko baldintza batzuk bermatu beharko dizkidazu; alegia, kalterik egingo ez diozula hor bizi den jendeari, eta bizimodu duina izango dutela.

Azken batean, hori da nazioarteko komunitateak jokatzen duten rola. Rol estrategikoa da, beharbada ez horren garrantzitsua, gobernuen borondatearen menpe baitago; nazioarteko lankidetzaren eta nazioarteko erakundearen menpe. Hala ere, ongi pentsatzen eta antolatzen bada, euste-estrategia bihur daiteke.

## Ikasitakoa

Azkenaldian egindako gogoetatik hau ondorioztatu dut: pertsonaz osatutako sistema bat direla erakundeak. Eta pertsona horien joerak, batzuetan, onuragarriak dira borroka komunitarioentzat, eta beste batzuetan ez. Honetan hasten zarenean, urrundu egiten zara; erakundeak han ikusten dituzu, Estatuak hor, eta gu hemen. Estatuak nire etsaia da, nire kontra dago; nireak ez bezalako helburuak ditu eta, beraz, beti begiratzen diot ikuspegi horretatik, zuhurtziaz. Estrategia politiko horretan, konturatuz joan gara erakundeetako pertsona batzuk oso sentiberak direla eta ulertzen gaituztela, eta gai direla guri laguntzeko. Egia esan, asko lagundu digute. Borroka honetan, aliatuak izan ditzakegu Estatuako funtzionarioen artean. Beren lana egiten dute, baina ulertzen dute bizitzen ari garena eta etikaz jokatzen dute.

Hona hemen beste irakaspen handi bat: borroka ezin dira soilik fisikoak izan. Indar fisikoak eta indar espirituala uztartu behar ditugu; biak elkarri lotuta egon behar dute. Bestela, ez dugu lortuko aurrera egitea gure eskubideak erdiesteko borrokan. Izan ere, sistemak, gerra-estrategia bati jarraikiz, pertsona ahuldu nahi du; borrokari eustea erabaki dugunon morala eta duintasuna birrindu nahi ditu. Beraz, ezinbestekoa da pertsona indartzea. Datorrena datorrela (nahiz eta oso itsusia, krudela edo ankerra izan), guk, borrokan ari den komunitateak, ezin diogu horri erantzun agresibitate berarekin eta indarkeria fisiko berarekin. Hori egiten badugu, beraiek aterako dira garaile. Estrategia baketsuak erabili behar ditugu erasoei aurre egiteko. Eta hor daude musika, kantua, hitzaren boterea, dantza; dena da maitasuna: borroka kantatua, erresistentzia kantatua eta dantzatua. Guztiz espirituala da dena, eta pozaren etsaiei amorrua ematen die emakume beltz zoriontsu bat ikusteak; eta are gehiago, min ikaragarriaz inguratuta

egonda ere zoriontsu garela ikusteak. Baina, Buenaventurako alkate hautetsiak duintasunez dioen bezala, “*Jainkoa Buenaventurara etorri zen bizitzera*”.

Ahokotasuna oso garrantzitsua da guretzat. Gure tresna bakarra da, jendea mobilizatzen duena. Guk ez dugu inoiz armarik hartuko legez dagokiguna defendatzeko; horregatik urruntzen gara talde armatuetatik. Talde armatu matxinoak, matxinatzeko arrazoiak izan ala ez, ez dira inoiz gauza positibotzat agertu nire imajinarioan. Azken hamabost urteak eman ditut lan komunitarioa egiten, eta hori berretsi dezaket. Borroka armatuak ez du ezertarako balio izan. Azter dezagun Kolonbiaren historia; duela 50 urte baino gehiagotik daude legez kanpoko taldeak, eta zertan aldatu du borroka armatuak Kolonbiako errealitatea urte horietan guztietan? Bada, ezertan ere ez. Beraien ustez, gure borroka ere ez du ezer aldatu. Alferrikakoa izan omen da diskurtsoaren, ekintzen, hitzaren bidez jendea mobilizatzen duen borroka. Baina alde ikaragarria dago bien artean: beste borroka hil egiten du, eta min handia eragiten. Nik nahiago dut alde honetan geratu. Nire ustez, borroka armatua ez da aukera bat legez dagokiguna lortzeko.

Bestalde, ikasi dut inor ez dela ezinbestekoa ezekin prozesutan. Ez ni, ez inor. Prozesuak indarren, ametsen, itxaropenen eta bizipen kolektiboen nahasketa dira. Ni hondar ale bat baino ez naiz, beste modu batera bizitzea merezi dugula uste duten eta mundu desberdin hori eraikitzeko lanean diharduten pertsonen unibertsoan.

Ez naiz ezinbestekoa borroka honetan. Baliteke ni hemen egotea, eta indartsua eta oso azkarra izatea, gaitasun asko edukitzea, ekarpenak egitea, jendea mobilizatzea; baina ni ez banago, borroka ez da geldituko. Don Temis<sup>32</sup> hil zutenean ulertu nuen hori. Leylarentzat eta niretzat, Don Temis oso pertsona garrantzitsua zen. Gau batean solasean ari ginela, Leylak esan zidan: “*Don Temis hil zutenean, legeen izen guztiak ikasi behar izan nituen, bai eta legeek esaten zuten guztia ere; berak zekien guztia. Nik ezer ez nekienez, eta berak bai, niretzat ezinbestekoa zen bera beti inguruan izatea*”. Don Temis ez dago jada gure artean, eta ez dagoenez, berak zekiena ikasteko betebeharra dugu. Laster bi urte izango dira erail zutenetik, baina haren borroka ez da hil. Ez dute lortu jendea beren lurretatik botatzea; borroka bizirik dirau. Hil egin zuten, eta haren hutsune handia dugu; behar-beharrezkoa zen jendea mobilizatzeke, eta guretzat ere oso pertsona garrantzitsua zen. Hala ere, aurrera jarraitu ahal izan dugu, ez dugulako etsi. Beraz, inoiz aldi baterako hemendik joateko erabakia hartzen badut, dela erabaki pertsonal bategatik, dela bizi dudana presioagatik, honek aurrera jarraituko du, ez baina ezinbestekoa.

Baliteke hori guztia ego kontuekin lotuta egotea. Baina nik uste dut zerikusirik handiagoa duela norberak izan nahi duenarekin. Sara eta Tulia<sup>33</sup> lankideak atxilotu zituztenean, jada erabakita zeukaten lurraldetik irtetea. Nik Sara ikusten nuen Mira ibaiari buruz hitz egiten, salatzen, gauza beldurgarriak kontatzen; eta hari begiratu, eta nire baitan pentsatzen nuen: “*Zergatik ez dio uzten horri buruz hitz egiteari?*” *Lurraldetik irten da dagoeneko, eta hemen dago; hain arriskutsua bada, zergatik hitz egiten du? Une batez, hura epaitzera heldu nintzen: “Ez al da izango ez diola uko egin nahi ordezkari izateari, bere lider-estatusari, eta horregatik prest dagoela bere bizitza arriskuan jartzeko? Hain da handia bere egoa, ezen hitz egiten jarraitu behar baitu garrantzitsu sentitzeko?”* Geroago, erantzuna aurkitu nuen. Ez da ego kontua; bizi-erabakia da. Alde batetik, ezin da isilik geratu, itotzen ari dela sentitzen duelako. Baina, gainera, bera izan dena da; bera den hori. Lagundu egin dio bere komunitateari, eta horregatik aintzatetsi dute. Eskubidea du aintzatespena jasotzeko, musu-truk egiten dituen gauzengatik. Lurralde honetan lortu du aintzatespena, baina ez Calin. Eta bera liderra da Tumacoko liderra delako, ez Calikoa. Calira joaten bada eta Tumacori buruz hitz egiteari uzten badio, den hori izateari utziko dio.

Beraz, ez gara funtsezkoak borrokan, baina jendeak aintzatespena merezi du. Eta aintzatespen hori nork bere lurraldean jasotzen du. Nik Buenaventuratik alde egiten badut, ez naiz inor. Hemen jende

32 Don Temístocles Machado Buenaventurako lider komunitario bat izan zen. Lurraldean duintasunez eta bakean bizitzeko Lanuzte Zibikoaren (2017) sustatzaileetako bat izan zen, eta 2018ko urtarrilaren 27an hil zuten.

33 Sara Quiñones eta Tulia Valencia Tumacoko Alto Mira Kontseilu Komunitarioko bi lider dira. Nazio Askapenerako Armadako (ELN) kide izatea leporatuta, espetxeratu egin zituzten urte eta erdiz, eta gertaera horiek “positibo judicial faltsutzat” hartu dituzte gizarte-erakundeek. Kolonbiako egungo gatazka soziopolitikoaren testuinguruan, Estatuak atxiloteta masiboak eta arbitrarioak egiten ditu eta prozesu judicialak abiarazten ditu giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen aurka. Erresistentzia-prozesuak desegiteko estrategia gisa erabiltzen du politika hori.

guztiak maite nau, jende guztiak ezagutzen nau, jende guztiak daki nor den Danelly. Niri buruz idazten dute, gauzetara gonbidatzen naute, nire izena daramaten liburutegi komunitarioak daude. Baina Bogotara joaten naizenean, ez naiz inor; ni hemen naizena naiz. Eta hemen naizena izaten jarraitu nahi dut, lurralde honetan hazi naizelako eta lurralde honen irudia naizelako. Hemendik kanpora, inork ez daki bizitza komunitarioarako pertsona garrantzitsua naizenik. Eta kanpora joaten naizenean, hori da kentzen didatena, aintzatespena; guztiz kentzen didate. Eta hori ez da ego kontua; norberak eraiki duen bizi-aukeraren parte da; bai eta harremanetatik sortutako irudiaren parte ere.

## Etorkizuna

Une zaila bizi dugu, eta ez dirudi itxaropentsu egoteko arrazoi handirik dagoenik. Baina gogoeta egin dut gauza batzuei buruz. Buenaventuran, indarkeria amaigabea izan da, etenik gabea. Izan dira ñabardura batzuk; etapa eta trantsizio-une batzuk. Orain bizitzen ari garenak 2000. urtean bizi izandakoaren antza du. 90eko hamarkadaren amaieran gertatu zenarekin ere alderatu daiteke. Antzeko zerbeit jasan behar izan zuten gure arbasoek ere, hona iritsi eta espainiarrei aurre egin behar izan zietenean.

Bizirik irauteko gai izan gara ziurgabetasunezko garai historiko horietan, eta beraien borrokari esker gaude gu hemen. Nire aitona-amonak izan ziren nire zubiak. Gure betebeharra da bizitza ereitea, eta gure arbasoak borrokatu ziren bezala borrokatzea, lurralde honetan bizi ahal izateko. Ia 600 urte igaro dira harrezkero, baina komunitate beltzaren bizileku izaten jarraitzen du lurralde honek. Gure hazia ereiten jarraitu behar dugu Buenaventura hustu ez dadin; hemendik inora joan ez gaitezen, hemen bizitzen jarrai dezagun.

Etsipenezko itsaso batean murgilduta egonda ere, borrokari eutsi beste aukerarik ez dugu, Leylak esan bezala. Ez dago besterik; borrokan jarraitzen ez badugu, desagertu egingo gara. Eta ez dugu desagertu nahi. Dantzan jarraitu nahi dugu, gure arraina jaten, gure *piangua* (mangladietako molusku-espezie bat) eta izkirak jaten. Alde egiten badugu, desagertu egingo gara.

Defendatzen ari garena ez da lurra soilik; bizitzeko behar dugun guztia ematen digun ingurunea da. Denetarik dauka: itsasoa, ibaiak, lurra, arrainak. Beraz, guretzat nahitaezkoa da bizi-ekosistema horiei eustea; bizimodu horiek bateragarri egin behar ditugu geurearekin, giza bizitzarekin, lurraldea izaten jarraitu ahal izateko; ez Buenaventurako lurra, baizik eta Buenaventurako lurraldea. Bizitzaz bere osotasunean gozatzen jarraitzeko. Maitemintzen jarraitzeko, bizitzen jarraitzeko, dantzatzen jarraitzeko (zeinen trebeak garen horretan!), jaten jarraitzeko.

Eustea da gure aukera bakarra. Guk esaten dugu eustea ez dela jasatea. Eustea da Estatuaren politika zitalari aurre egitea; legez dagokiguna erreklamatzeko, erasoak eraso; ez alde egitea gure lurretatik, baizik eta han bizitzen jarraitzea. Horixe da eustea, hain zuzen; lurraldean jarraitzea, han bizitzeko baldintza duinak sortuz. Eta hori da gure mezua. Gu hemen egotea, amets hori egia bihurtzea. Helburu kolektiboa izan behar du horrek. Nire ametsa da, eta saiatzen naiz amets horri jarraitzen. Eta, azkenean, noizbait, gauzatuko da ametsa; guztion indarrari eta ahaleginari esker, errealitate bihurtuko da guztion onerako. Borroka hau ez da amaitu; ez da amaituko harik eta beltzei beren eskubideak aitortzen dizkieten arte, Anchicayá ibaiko buruzagi zahar batek esan bezala.

